

BRITAINIA HANDIA: Araurik gabeko munduan, goikoen negozioak behekoen negarra eragiten du > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Udaberri antzuaren ostean, udazken freskagarriaren zain

RAMON SOLA > 11

2017ko ekainaren 24a | XI. urtea • 523. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

AITZINDARI IZAN DIREN FUTBOLARIEN AGURRA > 22





Grenfell dorrea: goikoen negozioa, behekoen negarra 04

Bizitzari eutsi hondamendiaren erdian 07

Hauteskunde britaniarren ostean, Eskoziako erreferenduma? 08

Uba harrera zentroa, etxeko magalaren pareko 12

Eneko, bere finean, etxean bezala 19

Bost emakume aitzindari, harro, futbolari agur esatear 22

In fraganti: Maite Basterra 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Ikasgai batzuk Brexitaren urteurrenean

10 **Saioa Aginako:** Metari sua

11 **Ramon Sola:** Udaberri antzuaren ostean, udazken freskagarriaren zain

17 **Exprai**

20 **Beñat Gaztelumendi:** Topikoak

21 **Nerea Ibarzabal:** Lumaren pisua

27 **Antton Izagirre:** Kukuak jotzen duenean

27 **Miren Azkarate:** Bi herri, bihotz bakarra

30 **Eduarne Larraza:** Marea kablea baino harrigarriagoa da haren transmititzeko ahalmena



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Ikasgai batzuk Brexitaren urteurrenean

Europar Batasuneko Lehiakortasun komisarioak, Neelie Kroes andereak, telefono enpresek norberaren estatutik kanpo deiak egiteagatik edo datuak jasotzeagatik kobratzen zituzten gainprezioak ezabatzeko proposamena luzatu zuen 2010ean. Azkenean, *rooming*-a aurtengo ekainaren 15ean ezabatu dute, orain dela hamar egun eskas. Zazpi urte behar izan ditu Europar Batasunak gainprezio horiekin amaitzeko. Eta hori herritarren poltsikoan eragin zuzena zuen zentzugabeko ordainketa bati buruz ari garela. Brexitaren erreferendumaren emaitzak erabakia gauzatu eta epeak murriztean nola eragin duen ikusteke dago oraindik. Brexita egon ez balitz, ziurrenik, itxaroten egongo ginateke oraindik.

Europar Batasunaren proiektua herritarren mesederako egitasmo gisa saldu nahi izan dute, baina praktikak behin eta berriz erakusten du kapitalaren zerbitzura sortutako merkatu komuna besterik ez dela. Ez dago arnas politikorik negozio ekonomiko hutsetatik harago. Herritarren babesa zuzenean indar dezaketen aldatek ere kapitalaren filtroak eta *lobby* indartsuen presioak gainditu behar dituzte. Europar Batasunaren eraikuntzan erabakigarriagoa gertatzen ari da interes ekonomikoa eragin politikoa baino.

Abiapuntu horrekin ez da harritzekoa Britainia Handiko herritarrek Europar Batasunetik alde egitearen aldeko botoa eman izana orain dela urtebete egindako erreferendumean. Aste honetan hasi dira banaketa egiteko moduaren gaineko negoziazioak, baina urtebetean gauza asko mugitu dira. Aipagarriena, beharbada, laboristen liderrak, Jeremy Corbynek, jasotako bultzada. Brexitaren aurreko bere posizio epelagatik bere lidergoa zalantza jarri bazuten ere, pasa den urteko udazkenean militantziak babesa berretsi zion eta lidergoa mantendu zuen. Hori ez da izan gainditu behar izan duen azterketa bakarra. Aurreratutako hauteskundeak bere hilobi politikoa izango zirela iragarri zuten askok, baina erronka horretatik ere indartuta ateratu da. Bere proposamenak herritarren kezka diren kontuetan zentratzeak ekarri dio arrakasta Corbyni.

Europar Batasunaren ideia, bere horretan, ez da ona edo txarra. Beste gauza bat da zertarako eta noren mesedetan erabiltzen ari den. *Roaming*-aren inguruko gorabeherek

ondo islatzen dute gauzak okertzen ez diren artean herritarrek ez dutela ezer pintatzen. Corbynek, baina, argi utzi du herritarren ongizatea ez dagoela besteen esku, are gutxiago Bruselako burokraten esku. Oinarrian herritarren ongizatearen funtsa estatu bakoitzean hartzen diren erabakietan dago: unibertsitateko tasak ezarri ala kendu; zerga erreforma egin ala ez; zerbitzu publikoak indartu ala pribatizatu... Horiek dira funtsezko erabakiak eta estatueta hartzen dira, hau da, burujabetza izatea eskatzen dute. Ideia sinple horrekin laboristen alternatiba indartzea lortu du.

Mantxako kanalaren beste aldean, europar eraikuntzaren krisiaren eta herritarren egonezinaren aurrean, «koalizio handiak» izan dira eliteen irtenbide politikoa. Batzuk esplizituak, Alemanian bezala; beste batzuk, inplizituak, Estatu frantsesa adibide. Koalizio horiek bi ondorio dituzte: alde batetik, ongizate estatua kudeatu duten alderdi sozialdemokraten desagertzea; eta, bestetik, demokrazia hauta-

Europar Batasuneko funtsezko erabakiak estatueta hartzen dira, hau da, burujabetza izatea eskatzen dute. Ideia sinple horrekin laboristen alternatiba indartzea lortu du Corbynek

tzeko aukera baldin bada, itxuraz ezberdinen artean, koalizio handiekin aukeratzeko posibilitatea bera desagertu egiten da, demokrazia kolokan jarritz.

Kontuak kontu, Europako buruzagiek Brexitarekin ikasgairik ateratu dutenik ez da antzematen. Estatu handienek orain arteko norabidean jarraitzea erabaki dute, adostasunaren aldeko apusturik egin gabe. Beraien artean onartutako denak aurrera egin du. Orain, gainontzeko estatuak erabakietara gehitu edo ez erabaki beharko dute; bakoitzak ikusiko du. Funtsean, hemendik aurrera Europa bi abiaduratan eraikiko da. Berrikuntza handia da hori. Hala ere, ez da argi ikusten modu horretan zer eraiki daitekeen komunean. Epe luzeko plana zein den ez da antzematen. Ematen du atakatik ateratzeko modua bilatzen ari direla ondorioetan gehiegi pentsatu gabe. Beraientzat funtsezkoa dirudi egungoari nola edo hala eustea, herritarrei leku eman gabe. •

BRITAINIA HANDIA

Araurik gabeko munduan, goikoen
negozioak behekoen negarra eragiten du

 **GIZARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Londresko Grenfell dorrea bertan bizi zirenentzako tranpa bihurtu zen orain hamar egun, iazko berrikuntza lanetan jarri zuten estaldura sukoi, merke eta legez kontrako baten eraginez. Esperientzia handiko suhiltzaileek ere ez dute gogoan eraikin handi bat hain bizkor suntsitzen ikustea. Auzotarrek beren haserrea adierazi dute.

Grenfell dorreko sute tragikoak Britainia Handiko gabezia batzuk erarik okerrerean jarri ditu agerian eta badirudi ondorioak izango dituela. Edo izan beharko lituzkeela. Sadiq Khan Londresko alkateak berak aditzera eman du 1960ko eta

1970eko hamarkadetan eraikitako bizitegi-dorre gehienak (milaka dira Britainia Handian) behera bota beharko lituzkeela, gaizki eginak baitaude, ezinbestekoak diren prebentzio neurriak hartu gabe. Desagertutzat emandako pertsonen erretratuak bazter guztietan jarri dituzte Latimer Road-eko metro geltokian eta

Grenfell dorreko
auzotarrak
Kensingtongo
udaletxean beren
haserrea adierazten,
hilaren 16an.
Daniel LEAL-OLIVAS | AFP

inguruetan. Batzuek etxean falta dutenaren erretratuarekin kamisetak egin dituzte, bizirik aurkitzeko itxaropenari eusten baitiote, nahiz eta Poliziak esan duen aukera hori oso zaila izango dela.

Grenfelleko dorrean herritar pobreak bizi ziren, 600en bat, 24 solairu eta 120 etxebizitzako blokean. Babes ofizialeko etxebizitza horiek auzo aberats baten erdian kokatuta daude eta auzotar batzuek uste dute horregatik erabaki zuela eraikina kudeatzen duen Kensington and Chelsea Tenant Management Organisation (KCTMO) erakundeak kanpoko aldea apaintzea.

ABERATSEN KAPRITXOA
Alia Al-Ghabani harreragileak bat egin zuen auzotarren protestaldiarekin, eta kazetariei esplikatu zien edonor haserretzeko modukoa dela iaz dorrea apaintzeko argudioa, inguruan



bizi diren pertsona aberatsen «kapritxo bat» izatea: «Blokearen parean dauden etxe ikaragarrri garestietako jabeei munstrokeria iruditu zitzaielako apaindu zuten dorrea eta hori ez da onartzeko modukoa».

Grenfell dorrea merkatuan dagoen materialik merkeen eta sukoiarenekin estali zuten iaz, “The Guardian” egunkariaren arabera. Omnis Exteriors konpainiak entregatu zuen erabili zen aluminiozko konposatua, Reynobond PE izenekoa. Enpresak onartu du materialik merkeena eskatu zitzaiola, eta horregatik baztertu zuela Reynobond FR izenekoa, sutea izanez gero askoz ere hobea dena baina metro koadroko 2,3 euro garestiagoa, John Cowley zuzendariak azaldu duenez.

Philip Hammond Ekonomia ministroak berak ontzat eman du informazio hori, erabilitako materiala debekatuta dagoela adieraziz: «Europar eta AEBetan debekatuta dagoen estaldura sukoi hori hemen ere debekatuta dagoela ulertzen dut», esan zion igandean BBC kateari, tankerako tragedia baten aurrean agintariekin erakutsi beharko luketen ziurtasuna beste baterako utzita. Hammonden arabera, «hemen bereizi beharreko bi kontu daude. Gure araudiak egokiak al dira eta material aproposak baimentzen al dituzte? Egokiak ez diren gaiak debekatzen al dituzte?».

«BUROKRAZIA» ETA ARAUAK

Indarrean dauden araudiak egokiak ote diren galdetzen zuen ministroak, araudi horien aurka bere joera politikoko (kontserbadorea) agintariekin abian jarri dituzten politiken inguruan galderarik egin gabe.

George Monbiot idazleak azken urteotako gobernuei (kontserbadoreei zein laboristei) leporatu die erantzukizuna, azken hamarkadetan nagusitu diren «burokraziaren aurkako politikak» herritarrek, batez ere po-break, babestea helburu duten arauak bete gabe uztea eragin baitute. Egoera esplikatzeko, R. H. Tawney historialariaren esaldi bat erabili du Monbiotek “The



Agenteek polizia-lerroa antolatuta zuten Grenfell dorrea sutan zegoela.

Daniel LEAL-OLIVAS | AFP

Guardian” kazetan: «Arrain handiaren askatasuna arrain txikien heriotza da».

Britainia Handian bezala, gaur egun herrialde askotan nagusitu da joera bera, «burokraziak» askatasuna eta produktibitatea kaltetzen dituela esanez. Trump AEBetako presidenteak beste inork baino garbiago esango du, baina gauza bera pentsatzen dute beste askok. Baita Rajoyk eta Macronek berak ere.

Estaldura kanpoko aldean duten eraikinen sute arriskuaren inguruko txostenak aspaldikoak dira, baina testu horietan esaten dena betetzeko garaian sortzen dira arazoak, kontserbadoreek zein Tony Blairren garaiko laboristek ez baitzioten negozio aukera bati inolako oztoporik jarri nahi: pentsamolde horren arabera, herritarrek babesteko diseinatutako neurri horiek etekin ekonomikoak murriztu baino ez dute egiten.

«Uste dut eraikuntzaren sektoreak ez duela ulertzen eraikinetan suteak nola sortzen diren eta zein arriskutsuak izan daitezkeen. Ezer ez arautzeko Gobernuak duen joerak eragiten du milaka lagun segurtasun neurriak betetzen ez dituzten eraikinetan bizitzea», esplikatzen du Sam Webb arkitektoak, Grenfell dorreko tragedia bera ez duela harritu esan ondoren.

Arkitektoaren iritziz, agintariekin ez dute gauza handirik ikasi azken urteotako esperientziatik. Esaterako, orain zortzi urte Lakanal House 14 solairuko eraikinak su hartu zuen Londresko hego-ekialdeko Camberwell auzoan (sei hildako). 1958an zutitutako blokeko bederatzigarren pisuan zirkuitulabur bat izan zen eta, ondorioz, eraikin osoa kiskali zen. Lehen sua sortu zenetik lau minutu nahikoa izan ziren kanpoko aldeko estaldura osoa sutan egoteko. Grenfellen bezala, bertan bizi zirenei gomendatu zitzairen pisuan gertatzeko. Ikerketak ondorioztatu zuen eraikinean egindako berrikuntzetan suaren kontrako materiala kendu egin zutela.

George Monbiot idazleak gogora ekarri du orain hiru urte Brandon Lewis garaiko Etxebizi-



Goiko irudian, emakume bat negarrez, Grenfell dorrean geratutako senidea galdu duelakoan.
AFP

Sutean desagertutako pertsonen erretratuak jarri dituzte kalean, berriz aurkitzeko itxaropenarekin. Gutxienez 79 lagun hil ziren, datu ofizialen arabera.
Daniel LEAL-OLIVAS | AFP

tza ministrordeak (gaur egun Immigrazio ministrordea da) eraikuntza konpainiak ur-ihintagailu automatikoen bidez sua itzaltzeko sistemak jartzera behartzeko ekimen bat baztertu egin zuela, argudio xeble bat erabilita: «Erregulazioa murrizten duen lehen Gobernu izateko hartu genuen konpromisoa dela-eta, 'bat sartu, bi atera' araua sartu dugu araudien inguruan: Gobernuak sartzten duen araudi bakoitzeko, kentzeko moduko bi aurkitu behar ditugu. Komunitateetako Ministerioak eta Udalak arau horrek eskatzen duena baino gehiago egin dute araudiak ezabatzeko».

AUTORREGULAZIOA

Onartzen zuen Lewisek ur-ihintagailuak oso eraginkorrak direla suteei eusteko garaian, baina eraikuntza konpainiak behartzea beste kontu bat da. Ministrordeak eskuak garbitu eta jabeei uzten die erantzukizuna, hartu beharreko neurriak har ditzaten. «Autorregulazioa», araudiek negozioari enbarazu egiten diotela esaten dutenek gustuko duten eufemismoa,



prebentzio neurririk hartzeko asmorik ez dutela garbi esatea mingarri edo gordinegi gerta daitekeelakoan.

Grenfell dorrekoek eta tanke-rako eraikinetan bizi diren herritarrek beren haserrea adiera-

zi dute. Theresa May lehen ministroa bera larri ibili zen auzora egindako bisita batean eta Poliziaren laguntza behar izan zuen bertatik irteteko. Udaletxera ere joan ziren protesta egitera, «justizia nahi dugu» oihuka-

tuz. Batzuek «hiltzaile» deitu zieten agintariei. «Erantzunak behar ditugu, ez gara istilu-sortzaileak», esan zien kazetariei Salwa Buamani 25 urteko emakumeak, ondoan iloba txikia zuela. «Orain gu gaiztoak garela

esango digute», erantsi zuen. Ez du inoiz ahaztuko suntsitutako dorreak eskailera bakarra zeukala, suaren kontrako aterik ez zuela, eta toki askotan ikusten diren –eta guztiek gomendatzen dituzten– ur-ihintagailu automatikoen bidez sua itzaltzeko sistemarik gabe zegoela.

ERREFUXIATUAK ETA PORROTA

Hildakoei dagokienez, lehen identifikatua Mohammed Alhajali Siriatic ihes egindako 23 urteko errefuxiatua izan da. West Londongo Unibertsitatean Ingeniaritza ikasketak egiten ari zen eta bere helburua Siriara itzuli eta herrialdea berreraikitzen laguntzea zen. Anaiarekin zegoen suteak dorrean harrapatu zituen. Anaiak bizirik irtetea lortu zuen (erietxean dago) eta orain agintarien porrota salatzen du: «Oso bidaia arriskutsua egin zuen Mohammedek Siriako gerra eta heriotza atzean uzteko, azkenean hemen, Erresuma Batuan, bere etxean, heriotza aurkitzeko. Segurtasun bila etorri zen herrialde honetara eta Erresuma Batuak porrot egin du bera babesteko garaian».



Hamza AL-AJWEH | AFP



IKUSMIRA

BIZITZARI EUTSI HONDAMENDIAREN ERDIAN

Ilunabarrean, maindire gorriekin apaindutako mahai luzeetan, zukuak, datilak eta albertxikoak. Plateretan, arroz eta ilarrez osatutako ohiko plater arabiarra. Kalearen erdi-erdian ospatu dute Ramadanean zehar eguneko baraualdia apurtzen duen «iftar» gaueko otordua Doumako auzo honetako biztanleek, azken egunotan

Siriako hainbat gunetan indarrean den su-etena baliatuz. Mahai ilara luzearen inguruan suntsitutako etxebizitzaren hondakinak ageri dira pilatuta, jantoki berezia osatuz. Txoko batean okasiorako prestatutako sukaldea dago, zapi gorri eta guzti. Bertatik banatzen dituzte platerak. Hori bai, gizon eta hurrei soilik. Irudian agertzen ez diren emakumeek etxera eramaten dizkiete -soilik neskatoek hartzen dute parte otorduan-. Damasko ekialdeko hirian «iftar» gaueko otordua elkarrekin egin nahi izan dute, segurtasuna sentituz eta aspaldiko ospakizunak gogoratuz, inguruko hondakinek azken lau urteotako gerra gogorarazten badizkiete ere.

Pablo Ruiz de Aretxabaleta

{ analisis } **Aimar Etxeberria**

Azeleratu edo frenatu, edo noiz arte itxaron

Lineala eta malkarrik gabea bada, ez du grazia-rik bidea egiteak. Halako ideia-aren bat behar dute izan Esko- zian independentzia prozesuari tiraka ari direnek, hau bidegurutze berri batean dela ikusita. Orain urtebeteko Brexitaren aldeko erreferendu- mak joko-arauak aldatu bazi- tuen, ez da gutxiagorako izan Britainia Handiko hauteskunde orokorrek prozesu independen- tistarengan izan duten eragina; hark hauspotu zituen urak, eta honek baretu. Baina ez zuten es- koziarrek independentzia be- hatz puntekin ukitzen britainia- rrek Europar Batasuna uztea erabaki zutenean, eta ez die tre- nak behin betiko alde egin SNPk Westminsterren hogeiren bat eserleku galdu dituenen. Auke- rak bere horretan dirau, eta etorkizunak baino ez du esango balantzak zein aldetara egiten duen. Bien bitartean, eman die- zaiogun gainbegiratu bat ireki den aroari.

Iragan ekainaren 8an hautes- kunde orokorrak egin ziren Bri- tainia Handian, ondorioz, esko- ziarrek Westminsterreko euren 59 ordezkariak hautatzeko para- da izan zuten. Eskozian, batez ere, SNPren eta Alderdi Kontser- badorearen artean zentratu zen lehia kanpainan, baina emaitzek laborismo eskoziarra ez dela erabat itzali erakutsi zuten.

Bigarren independentzia erre- ferendumak baldintzatu zuen askoren botoa, eta emaitzetatik tiraka hainbat ondorio atera daitezke: ukazina den gehien- go osoa lortu zuen SNPk aulkiei dagokienez (35), baina botoek independentziaren aurkakoen garaipen argia erakusten dute (unionismoak 1.654.017 boto, %62,71 vs independentismoak

Hauteskunde orokor
britainiarretan SNPk lortutako
emaitzek iritzia aldarazi ote
diote Nicola Sturgeon lehen
ministro eskoziarrari? Edo
aurrera egingo du bigarren
independentzia
erreferendumarekin?
Baldintzak, behintzat, aldatu
dira; ondorioak, ikusteke dago.

983.455 boto, %37,28). Emaitzek bigarren independentzia errefe- rendumaren gaineko eztabaida ireki dute berriro, hautetson- tzietatik pasatu aurretik itxia zi- rudien eztabaida; orduan, galde- keta “bai edo ez” baino “noiz” egin zen eztabaidagai.

Egoerak mugimendu inde- pendentistaren artean ere era- gin ditu arrakalak, eta bigarren galdeketaz –eta bien bitartean egin beharreko bidez– ikuspegi ezberdinak aireratu dira. Bada Nicola Sturgeon lehen ministro eskoziarrak gidatutako lantalde- aren ildoak babesten duenik. Mi- chael Russell Eskoziaren Brexi- terako ministroa izan daiteke horietako bat, zeinak bigarren galdeketa Londres eta Bruselak garatuko duten negoziazio pro- zesuarien amaieran egitea de- fendatzen duen. Ildo horretan

harago doa, adibidez, Alyn Smith SNPko eurodiputatu, in- dependentzia erreferenduma eta Europar Batasunaren baita- ko pertenezkoa batera bozka- tzea defendatzen baitu.

Baina ez da independentzia zale oro eroso aurkitzen aukera independentista zutenean Bre- xitarekin lotuta ikustean, gu- txiago Brexit “gogorrak” auto- matikoki eskoziarrak hautabide independentistara erakarriko dituela dioten ustearen aurrean. Victoria Heaney Women for In- dependence mugimenduko ki- deak independentzia esanahi eta balioz betetzearen alde egi- ten du. 2014an independentzia- ren barkura gehitutako unionis- ta bera, nahiago du estatu batek politika aurrerakoiak garatzeko orduan dituen baliabideez hitz egitea, Brexitaren ondorioez

baino. Eta antzerako ikuspuntua plazaratzen du Colin Fox Sco- ttish Socialist Partyko kideak, zeina “SNP & independentzia prozesua” binomioarekin apur- tu eta abertzaleek garatzen di- tuzten politikak modu irekian kritikatzearen alde agertzen den.

Ahots optimisten artean Den- nis Canavan azpimarratu daite- ke. Yes Scotland mugimenduko buruzagi ohia bera, Alderdi Kon- tserbadorearen politikek eta Brexitaren negoziazioek Eskozia zutenean independentziara era- mango dutela aldarrikatzen du, nahiz eta *stand by* egoeran aur- kitzen den mugimendu herrita- rraren aktibaziorako deia egiten duen.

Mezuak etxe barrutik

Lehen mailako dimentsio politi- koa hartu dute asteon Tommy Sheppard SNPren Westminste- rreko diputatuak egin dituen hi- tzek. Ahots autorizatu da Shep- pardena alderdiaren baitan, ez baita alferrik aurkeztu alderdiko lehendakariorde eta Westmins- teren bozeramaile izateko, nahiz eta ez den hautatua izan ez baterako ez besterako. Shep- pard, baina, SNPren adar inde- pendentistan kokatzen delako da ezagun, eta bigarren errefe- rendumaren harira egin dituen adierazpenek hautsak harrotu dituzte.

Galdeketa berriaz gehiago ez hitz egitea gomendatu dio dipu- tatuak Sturgeoni: «Zuzen egin genituen gauzak martxoan inde- pendentzia erreferendum berria agindu genuenean. Gobernu bri- tainiarrak ez zituen aintzat har- tu eskoziarrak eginiko proposa- menak, eta, Brexitaren ondorioak direnak direla, garbi dago baldintza objektiboetan

funtsezko aldagetak izango di-rela». Orduan bere Gobernuak hartutako erabakiarekin ados egonagatik, baina, aho bizarrik gabe onartzen du hauteskunde britainiarrek ere gauzak aldatu dituztela: «Emaitzak aztertuta iruditzen zait Brexitaren negoziazioek ematen dutena garbi ikusi arte itxaron beharko genukeela, eta ondoren erabaki bigarrenez galdeketa egitea nahi dugun edo ez. Denboretan *pause* botoiari sakatzeaz ari naiz hizketan, zehazki non aurkitzen garen ikusi bitartean». Gainera, *tory*-en gutxiengoko Gobernuak bigunagoa litzatekeen Brexit bati ateak irekitzen dizkiola uste du Sheppardek, baita hortik Holyroodera eskumen berriak etor daitezkeela ere.

Nolabaiteko babesa izan du-te Shepparden hitzek SNPren baitako bestelako figura batzuen artean. Abertzaleentzat aholkulari lanetan aritu zen Alex Bell, besteak beste, Shepparden ildoan kokatu da, eta Sturgeonen Gobernuari independentzia erreferendumari dagokionez ahoa ixteko eskatu dio: «Erresuma Batua benetako krisi batean dago murgilduta. Sturgeonek bere eskumene-koak diren hezkuntza eta osasungintzan zentratu beharko luke, nahiz eta gaur ereindako uztaren emaitzak urte batzuen buruan jasoko diren, erakutsiz epe laburrean hartzen diren arriskuek epe luzera ematen dituztela irabaziak. Bitartean isilik, eta utz diezaiola Brexita biguntzeko ahaleginari ere; zentratu dadila Holyroodeko bere eguneroko lanean».

Badira euren adierazpenekin urrunago joan direnak ere, eta *pause* botoia ez ezik independentzia erreferendumaren

Britainia Handiko hauteskundeak egin baino egun batzuk lehenago, milaka lagunek independentziaren aldeko martxa egin zuten Glasgown.

Andy BUCHANAN | AFP



siwtch off botoia ere zapaltzea eskatu dutenak. Bere garaian Justizia idazkari izan zen Kenny MacAskillen kasua litzateke, adibidez. Honek bigarren galdeketa aukera bertan behera uzteko eskatu dio Sturgeon-ori, horretarako «ez babesik ez gogorik» ez dagoela adieraziz: «Ezin da SNPk hauteskunde orokorretan erdietsitako emaitzen aurrean ez-ikusiarrena egin eta galera hori alderdi unionisten boto taktiko moduan ulertu».

Sturgeonen txanda

Bueltan-bueltan, Sturgeonen teilatu gainean pausatu da berriro ere pilota. Berari tokatzen zaio arre edo so egitea, azelera-gailua edo freno a zanpatzea, aurrera edo atzera egitea erabakitzea. Zantzu guztien arabera, datorren aste honetan bertan emango du lehen ministro eskoziarrak bere asmoen berri, Holyrood uda sasoiko oporrak

dian sartu aurretik. Kontua, baina, nahi baino gehiago luzatu zaio Sturgeon-ori, eta baldintza subjektiboak ez dira martxoan bigarren independentzia erreferenduma agindu zueneko berberak. Bizkorra izan zen orduan Londresen erantzuna: «Ez da orain galdeketa berri baterako momentua». Horrek plan aldaketa eragin zion, baina are ustekabe handiagoa izan zen Theresa May lehen ministro britainiarrak hauteskunde aurreratuak deitu zituenean. Hauteskundeak begi bistan, bozketa egunaren ondorenako utzi zuen Sturgeonek Aste Santuen itzuleran prozesu independentistaren urrats berrien berri emateko agindua zuen agerraldia. Bi hilabeteko atzerapenarekin bada ere, badirudi oraingoan baietz, uxatuko dituela batzuen zein besteen zalantzak, batzuen zein besteen poz edo tristurarako.

Hala agindu du, bederen, Sturgeon berak asteen. Gaia

mahai gainean izan zuen bere kabineteak hauteskunde osteko lehen bilkura egin zuenean, eta lehen ministroaren bozeramailea izan da bilkuraren nondik norakoen berri eman duena: «Lehen ministroak gidatuta, bigarren independentzia erreferendumaz hitz egin zen bilkuran. Hauteskunde ostean berak abiatutako jardunaren parte izan zen eztabaida, eta Gobernuak zein alderdiko kideekin gaiaren inguruan hizketan jarraituko du lehen ministroak aurrerantz ean ere».

Kazetariak Sturgeonen hitzartzea Holyroodek bere oporrak hartu aurretik, hots, ekainaren 29aren aurretik egingo ote duen galdetzean, honela erantzun zuen bere bozeramaileak: «Litekeena da aipatu dataren aurretik izatea, nire ustez». Hortik aurrera ez zuen argibide gehiagorik eman Eskoziako lehen ministroaren eledunak.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Metari sua

Hiriari erre usaia dario. Paper, boligrafo tinta eta sitsatutako altzarien arrastoa giroan da nabari, eltzean poliki eta mimoz irakiten jarritako edabearen lurrinak utzitako aztarnaren pare. Desio eta kontu txarrak airean sakabanatu dira bart molekula ikusezinetan, sorginkeriak bailiran, aireko espazioari pisua emanez.

San Joan gauaren inguruan gertatzen diren errituak magikoak iruditzen zaizkit betidanik. Gogoz joaten naiz sugarrak ikustera eta denbora batez haiei begira geratzen naiz, pertsona andanaren bizipen, objektu eta grinek gaua argiztatzea lortzearen ahalmenarekin liluratua. Gaizki egiten dizkiguten jarrerak eta emozioak ordezkatzeko dituzten papearak eta ganbara sitsez betetzen dituzten altzariak erretzearen errituarekin, guretzako «txarra» irudikatzen duena desagerrarazten saiatzen gara, gainetik pisua kentzeko saialdian alegia. Aldi berean, «ona» denari atea ireki nahi diogu, lorpen berriak, pertsona bereziak eta bizipen positiboak ekarri nahi ditugu gurera. Gure bizitzako zikinkeria eta

hautsa, haize fresko eta ur garbiagatik aldatu nahi ditugu. Hala nola guretzako zentzua galdu edo oztopo bat suposatzen duena, hasiera berri batengatik aldatu nahi dugu. Eta nik galdetzen diot nire buruari: zergatik itxoiten dugu ekainera arte balio ez digunaz libratzeko eta nahi dugunaren bila abiatzeko?

Zoriontasuna emango digutelakoan, San Joan suan amaitzen duten pilaka objektu eta tramankulu metatzen ditugu. Etxeko gelak eta ontziak betetzeko materiala bilatzen eta aukeratzen ematen dugu denbora, gerora hiruzpatalu aldiz soilik erabiltzeko. Gauzak pilatzen gozatzen dugu. Hobeto esanda, gauzak pilatzen gozatzen al dugu? Argi dagoena zera da: kontsumoak agintzen duen gizarte batean bizi garen neurrian, gure izatea, gure menpe dauden gauzen kopuruaren arabera zehaztua eta baloratuta dago. Salmenta kanpainen gure arreta bereganatzen dute, Diogenes gaitzaren antzeko kiribil batean murgiltzen gara; eta erositakoa gainontzekoei erakusteko nahiarekin batera, lasaitasuna ematen digu maizter izateak. Objektuen bilketan urteak daramatzagunean,

leku faltan gaudela sumatzen hasten gara eta erabakiak hartzeko premian ikusten dugu gure burua, zer bota eta zerekin gelditu. Orduan, izkina batean hautsaren eta paper orizka dorre baten azpian ahaztuta zegoen trasteria zaborretara botatzeko zalantzak agertzen dira. Sentimendu ezberdinak azaleratzen zaizkigu, maitasunaren antzekoak, botatzera goazena erosi genueneko garai zoriontsua gogora etortzen baitzaigu, edo beldurraren modukoak, zaborretara bota eta bere falta izango ote dugun pentsatuz. Gure emozioak objektuetan jartzen ditugu eta horrek zailagoa egiten du eginkizuna.

Emozioen harira, oso ohikoa da hauek ere gure barneko ganbara eta konpartimentuetan pilatzen ustea. Kontua da barruan metatuta geratzen diren emozioak, objektuekin gertatzen zaigun bezala, mesede gutxien egiten digutenak direla, adibidez haserre, frustrazioa edota bekaizkeria. Txikitatik gure emozioak isilarazten irakasten digute, malkoei eusten diegu ateratzen utzi beharrean, eta, baztertuak izateko beldurrez, sentitzen duguna esan beharrean beste zerbait asmatzen dugu. Beldurra gudan txertatzen hasten da, sentimendu eta emozioen mozala bailitzan eta gorputza ontzi modura erabiltzen hasten gara, sentimenduak metatuz. Emozio horiek, adierazi edo landu arte, gure barruan jarraituko dute, eta beste emozio atsegingarri eta eraikitzaileagoak bizitza oztopatuko digute. Horregatik, gaizki sentiarazten gaituzten sentimenduak eraldatzen saiatu behar dugu, nekeari eta atsekabeari aurre egin ahal izateko.

Izaki emozionalak gara, eta, emozioek, isilarazi arren, gure barnean jarraituko dute. Sentimendu zein emozioak isilarazten nahi dugun guztia ahalegindu gaitzke, baina lehenago edo beranduago gorputzak isiltasunaren aurrean erreakzionatuko du. Esateko dituzun hitzak edo ateratzeko dauden malkoak nolabait agertuko dira, eta hori ekiditeko ezingo dugu ezer egin. Ur zikinak gainezka egingo du, gure barnean piztu den sutea itzaltzeko ahalegin alferretan. •



Guretzako «txarra» irudikatzen duena desagerrarazten saiatzen gara San Joan suan.

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Udaberri antzuaren ostean, udazken freskagarriaren zain

Udaberri itxuraz antzua joan da. Esparru politikoan, albiste nagusia EAJren eta PPren arteko argazki gabeko ezkontza izan dela gogoratzearekin dena laburbilduta dago. 80ko hamarkadako EAJ-PSE koalizioen berpizteari orain 90eko hamarkadako *txin-txin* hotseko itunen errepikapena erantsi zaio. Zaharrak berri. Aste honetan, uda astun, ziplo, erori zaigu gainera: apokalipsi itxurako agertokia kanpoan (nonahi eta noiznahiko eraso jihadistak, errefuxiatuen etengabeko tragedia, klima aldaketak azkarturiko sute ikaragarriak, Trump eta bere *trumpkerien* zirku kezkarria...), baina hori guztia burutik aldenduz gero, barealdi nabarmenagia gurean, gero eta luzeagoa den oporraldi garaiko deskonexioaren eta herriko jaien jira-bueltaren hastapenaren. Sargori garai honek dena hibernatzen jarri aurretik, batere urruti ez den udazkenak freskotasan handia ekar diezagukeela aurreikustea guztiz komenigarria da, udaren bueltan ustekaberik ez hartzeko.

Kataluniatik datoz, jakina, haize berri osasuntsuenak. Hitzordu nagusia jarrita dago, erronka gogorrera botata. Urriak 1 edo 1-o deitu den horrek jada prozesuaren markagailua aldarazi duela uste dut: Kataluniak 1-Espainiak o irudika dezake datak. Partida amaitzeko oraindik falta da, izerdia bota beharko dute batzuek zein besteek, baina, ezina ekin ez giten dela garbi izanik, burujabetzaren aldekoek Estatuari aurrea hartu diote, eta, Moncloakoen mehatxuzko hitz potoloetatik harago, ez da antzematen praktikan norgehiagoka nola irauli nahi duten. Erreferenduma ekingo lukeen –nolabait berdinketa berrezar lezakeen– eskaintza politikoa egiteko tarterik ez da sumatzen, ez eta horretarako inolako gogorik ere. Baina hautetsontziak dagoeneko egon badira, bozketa egiteko eta boza emateko jendetza prest ere bai, Kataluniako gehiengo politikoa eta erakundearen erabakitasuna aski frogatuta utzi ditu azken urratsak, eta sortu den joko-zelai berrian ostikoka hastea, errepresioa erabiltzea alegia, tentazio erraza baina tresna guztiz galtzailea da Madrilentzat, Kataluniari begira eta nazioarteari begira ere bai.

Erreferenduma ez dutela egingo esan du Xabier Arzalluzek, baina hori nola gertatuko den arrazoitu gabe: ez

dakigu Rajoy benetan dena baino indartsuagotzat duen ala katalanak direna baino ahulagotzat hartzen dituen, eta, batez ere, ez dakigu esaldi horrekin benetako ustea ala bere alderdiko nahia ari den adierazten. Izan ere, posizio ezin okerragoa hartu dute Sabin Etxeak eta Lakuak, historikoki erabili duten zuhurtzia (denbora alfer-alferrik pasatzen uzteko trebezia miresgarria) oraingoan erakutsi gabe. Bidegurutzean zein bide nabarmentzen zen itxoiten ez dira gelditu, aurretik norabide txarretik abiatu dira PPren eskutik. Iñigo Urkulluren hainbat keinutan (EHUko Udako Ikastaroen inaugurazioan eginiko hitzaldia esaterako), jada atzera egiten hasi eta PSOE berriaren aterkipean jartzeko gogo ageri da, Kataluniako talkak gehiegi kalte ez dezan, baina *plurinacionalidad* antzu hori ere ez da aterpe nahikoa izango. Gauzak horrela, arrazoi guztia du Arzalluzek: erreferendumik ez gertatzea du aukera duin eta on bakarra alderdiak (ez Euskal Herriak, noski).

Arrazoia du Arzalluzek, dirudien bezala adierazi duena nahia bada eta ez ustea: puntu honetara iritsita, erreferendumik ez izatea du aukera duin bakarra EAJk. Askoz hobe kokatu dira EH Bildu, ELA eta LAB

Erakundeetan duten indarra, epe motzean eragiteko gaitasuna, apalagoa izanik ere, ideiak argiago eta koka-pen egokiagoa dute ezkerreko burujabetzaren aldeko indarrek. EH Bilduk eraginkorrerago izateko etxeko lanak ez ditu udarako utzi. Izen-abizenei eta norberaren sexu eta jatorriari buruz dezente hitz egin da, baina adierazgarriagoa da etorkizunari aurre egiteko egitura osatu duela: Larraitz Ugarte arduradun duen estatu eraikuntzarako idazkaritzaren sorrera da adibiderik garbiena, baina ez bakarra. Beren aldetik, ELAk eta LABek orrialde zuriaren gainean beltzez jarri duten burujabetzaren eta aldeba-kartasunaren aldeko konpromiso komunak Katalunian gerta daitekeenari aurrea hartzen dio ere, eta Urkulluren asmoak –PPrekin izan, PSOErekin izan ala biekin izanda ere– gauzatzeko tartea asko murrizten du. •

UBA HARRERA ZENTROA

Adin txikikoentzat etxeko magalaren ahalik eta antzekoena izan nahian

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Donostiako Uba larrialdietarako harrera zentro bat da, egoera zaurgarrian dauden eta babes behar duten adin txikikoen aldi baterako magala. Bidaia migratzailea bakarrik abiatu duten gazteak hartzen ditu batetik, eta, bestetik, babes beharrean dauden haur autoktonoak. Zabalduz Kooperatiba Elkarteak kudeatzen du.

Alboko irudian, Donostiako Uba harrera zentroa. Guztira 22 plaza ditu adin txikikoen babeserako guneak.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Uba bidean gora, Donostiaren ikuspegi patxadatsua eskaintzen du Uba harrera zentroak. Eta patxada oso garrantzitsua da hara iristen diren adin txikikoentzat, arrazoi bat edo beste tarteko, babesik gabe eta laguntza beharrean iristen direlako. Larrialdi zentroa da Uba eta hiru programa hartzen ditu bere baitan. Bat, inoren kargu ez dauden gazte migratzaileak hartzeko; bigarrena, erreferente familiarak dituzten eta larrialdi egoera bat bizi duten adin txiki-

ko autoktonoak hartzeko, eta, hirugarrena, neurri judizialak dituzten eta Gipuzkoako Aldundiaren esku dauden adin txikikoen jarraipen judiziala egiteko. Beren proiektu migratzailea bakarrik abiatu duten gazteen kasuan, egonaldia hiru eta sei hilabete bitartekoa izaten da. «Hemen pasatzen duten denbora horretan gaztearen –gehien go zabala mutila da– profila eza gutzen saiatzen gara. Bere ezaugarriak, beharrak, indarguneak eta ahulguneak detektatzen saiatzen gara eta, horien arabera, baliabide sozial batera edo bestera bideratzen dugu he-

mendik», azaldu du Beatriz Maillok, Ubako zuzendarietako batek. Adin txikikoa normalean Poliziak lagunduta iristen da. «Zuzenean hezitzaile batek egiten dio harrera eta nondik nora iritsi den jakiten saiatzen da. Batzuk Estatu espainoleko erkidegoren batetik etortzen dira, bertako zentro batean egotetik. Eta beste batzuk zuzenean jatorriko herrialdetik, bidaia auskalo zein baldintzetan egin ondoren. Askok kamioi baten azpiko aldean egiten dute bidaia. Gehienak Marokotik etortzen dira». «Lehen harrera hori hezitzaile arabiar batek egiten die. Oso ur-

KOOPERATIBA SOZIALA, JENDEAREKIN ETA JENDEARENTZAT



Uba harrera zentroak badi berezitasun bat: Zabalduz Kooperatiba Elkarteak kudeatzen duen zerbitzua da. Zabalduz kooperatiba gaztea da, 2012. urtean sortua. Baina atzetik soka luzea dauka, Bizkaian kooperatiba modura 25 urte lanean daramatzan Agintzaren bultzada baitauka. «Agintzarik 40 urte darama-

tza kolektibo bezala Bizkaian lanean –25 kooperatiba modura– eta enpresa sozial bat da. Orokorrean arlo sozialean aritzen da eta bereziki adin txikikoen babes neurrietan. Azken urteotan konturatzen ari ginen kapital enpresa asko arlo sozialean sartzen saiatzen ari zirela –bereziki Gipuzkoan–. Kapital enpresetan kapitala da garrantzitsua, etekinak ateratzea. Enpresa sozialak, berriz, jendarteari lotuta gaude, lan egiten du-

gun jendartearekin konektatuta gaude eta ez dugu irabazi asmorik. Etekinak berriz inbertitzen ditugu jendarte horretan, zerbitzuak etengabe hobetuz eta lan egiten dugun jendearen beharrak oso kontuan izanik», hasi du azalpena Josu Gagok. Agintzari Gipuzkoako zuzendaria da eta baita Zabalduzeko kanpo zuzendaria ere. Izan ere, gaur-gaurkoz Zabalduz Kooperatiba Elkarte mistoa da: norbanakoek osatzen dute

Hasierako une horretan «edozein etxetan bezala» hartzen dituzte adin txikikoak. «Dutxa bat, arropa garbia, jatekoa, deskantsua... behar dutena. Maiz lehen egunak lo ematen dituzte»

duri etortzen dira, defentsiban jarrita eta polizia zibilak bagina bezala ikusten gaituzte. Mesfidati etortzen dira, oso nekatuta, galduta. Ez dakite nora iritsi diren ere. Eta hasiera horretan hezitzaile arabiarren lana izugarri garrantzitsua izaten da», gaineratu du Gaizka Larrañaga hezitzaileak. Guztira 45 hezitzailek egiten dute lana Uban eta laneko txanda bakoitzean bi hezitzaile arabiar izaten dira normalean, aipatu egoerak kudeatzen laguntzeko.

Hasierako une horretan «edozein etxetan bezala» hartzen dituzte adin txikikoak. «Dutxa bat, arropa garbia, jatekoa, deskantsua... haiek behar dutena. Askotan lehen egunak lo ematen dituzte. Badugu harrera protokolo bat, baina horren gainetik dago beti pertsona. Gaztetxo bakoitzak behar duena hartzen da kontuan, oinarri seguru bat eman asmoz, babesa eskainiz eta etxean bezala senti daitezen saiatuz», segitu du Larrañagak.

Larrialdiko lehen harrera horren ondoren, bigarren pauso batean adin txikikoarekin hizketan hastea da helburua. «Gaztetxoak ezagutzen saiatzen gara.

Gero, Donostian kokatzen ditugu eta baita Gipuzkoan ere. Inguruak erakusten dizkiegu eta mapan kokatzen dugu non gauden, askok ez baitaukate ideia-rik ere. Hemen geratzeko asmoa baldin badute, lanean hasten gara, beren bizimodua aurrera ateratzeko tresnak eta baliabideak eskainiz», esan du Maillok.

Uba larrialdietarako harrera zentroan oinarri bat finkatzen saiatzen dira; hizkuntza ikasi, autonomia landu, egoera legezatzeko bidea abiatu... «Normalean bi kezka nagusi izaten dituzte; eskolako kontuak eta paperak legeztatzea. Eta berehala agertzen dute beren familiari laguntzeko beharra», esan du zuzendariak. Normalean 16-17 urte inguruko gaztetxoak izaten dira eta Heziketa Profesionalera bideratzen dituzte.

Familiak aipatuta, Ubako hezitzaileek diotenez batzuek badute beren seme-alaben proiektu migratzailearen berri, baina beste batzuek ez. «Zentrora iristen direnean familiari deitzen diote. Batzuetan familiak badaki bidaia abiatu duela, baina sekula ez da jakiten non eta nola amaituko den. Ez dut imajinatu

«Azken helburua Ubatik pasatzen diren adin txikikoak pertsona bezala ahalik eta ondoen garatzea da, eta horretarako tresnak jartzen ditugu haien eskura»

ere egin nahi zer sentitu behar duten etxekoek dei hori jasotzean. Sekulakoa iruditzen zait. Adin txikiko hauek beren bizitza arriskuan jarri dute bidaia hau egiteko, ez daukate ezer, ez dakite nora iritsi diren... Pentsatzen dut telefono dei hori jaso eta semearen edo alabaren ahotza entzuteak sekulakoa izan behar duela», iritzi dio Larrañagak.

BIZITZARAKO TRESNAK ESKAINTZEA

Helburu nagusia, beraz, hiru eta sei hilabete bitarteko epean arrotza zaien jendarte eta kultura batean integratzen laguntzea da. «Tailer eta ekintza asko egiten ditugu egunero. Hizkuntza asko lantzen da, baina horrez gain bizitzarako tresnak ematen saiatzen gara. Batetik, komunitatearekin harremanak lantzen ditugu, iritsi diren gizartea ezagutu eta errespetatu dezaten. Horrez gain, askotariko alderdiak

lantzen ditugu: sexu heziketa, diruaren erabilera, garraio publikoaren erabilera, elikadura eta zapo berriak, etxeko lanak, kirola, baratza... ekintza asko egiten ditugu gaztetxoei bizitzarako tresnak emateko eta behar duten babesa eta konfiantza transmititzeko. Laguntza eta estimulua eskaintzen dizkiegu ahalik eta azkarren gizarte honen parte senti daitezen».

Arauk eta mugak ere oinarritzekoak dira. «Maitasunetik eta babesetik aritzen gara lanean, baina exijentzia handiko zentroa da. Gaztetxoei asko exijitzen diegu, bakarrik aurrera egiteko tresnak ematen dizkiegu eta oso garbi adierazten diegu haiek direla aurrera egin behar dutenak. Beren integrazio prozesuaren protagonistak beraiek dira eta hala behar du, beren bizitzaren protagonista haiek izango direlako. Arauk eta mugak oso zorrotzak dira», agertu du Larrañagak.

Logelak txukuntzeaz eta garbitzeaz gazteak arduratzen dira, egunero sukaldean laguntzen dute, jatekoa banatzeaz arduratzen dira, mahaia jarri eta jaso egiten dute, baratzean aritzen

eta Agintzari kooperatibak ere bere parte dauka. Izan ere, Zabaldus sortzeko metxa Agintzarik piztu zuen.

«2011. urtearen bueltan Bizkaitik Gipuzkoara egin genuen salto, gure proiektua indartu nahian. Helburua gure filosofia eta lan egiteko modua zabaltzea da, etorkizunean sare bat josi ahal izateko. Bide horretan, 2012. urtean Uba zentroaren kargu egin ginen. Bertan topatu genuen bere lanarekin oso konprometitua dagoen lantaldea eta proposamen bat egin genien: zatozte gure proiektura eta osa dezagun arlo sozialean arituko den kooperatiba bat. Izan ere, gu ez gentozen zerbitzu baten kudeaketa eskuratzeraz, eredu bat

partekatzeraz baizik», agertu du egindako bidea Gagok. Eta bide horretan sortu zen Zabaldus 2012. urtean. Oraingoan, Uba da eskaintzen duen zerbitzu nagusia, baina dagoeneko hasi da beste zerbitzu batzuk kudeatzen eta asmoa da etorkizunari begira sarea josten segitzea. «Oraingoan Agintzari Zabaldus kooperatibaren parte da, baina etorkizunean ez dakigu zer gertatuko den. Gure helburua da arlo sozialean lan egingo duten kolektiboen sare bat osatzea, gure filosofiarekin bat egingo duen sare bat. Eta sare horren muina Agintzari eta Zabaldus izango dira».

Autogestioa, gardentasuna, jendartearekin konpromisoa, benetako berdintasuna, kalita-

te teknikoa eta berrikuntza. Oinarri horien gainean lan egiten dute hirugarren sektorean diharduten enpresa sozialek. «Kapital enpresetan dabiltzan langileek lanerako oinarri berberak dituzte eta benetako profesionalak dira. Desberdintasuna da kupula, goi karguak, langileekiko urrunago daudela eta segur aski eguneroko beharrak ez dituztela hain presente. Kooperatiba batean, berriz, horizontaltasuna da nagusi

eta langileak eta kupula lerro berdinean gaude». Lerro berdinean eta helburu nagusi garbiarekin: beharrak eta zailtasunak bizi dituzten pertsonak baliabide eta tresna onenak izan ditzatela eskura.

Gagoren hitzetan, helmuga ez da hainbeste egun martxan dagoen babes sistema aldatzea, «oinarri oso sendoak» ditzuelako, baizik eta martxan dagoen sistemaren baitan hobekuntzak eta aldaketak

etengabe proposatzea. «Haur bat babesik gabeko egoeran dagoenean, zenbait neurri har daitezke; harrera familia, egoitza batean harrera, adopzioa edota familiarekin esku hartze bat egitea egoera bideratzeko. Badira, baina, bestelako aukerak eta horiek ikertzen ari gara etengabe, Euskal Herritik kanpoko ereduak ezagutzen. Adin txikikoen babeserako sistema etengabe hobetzeko ardura sentitzen dugu. Egoera zailak bizi dituzten haur horien alde egin nahi dugu eta, gainera, modu etiko eta arduratsuan egin nahi dugu».

Gaizka Larrañaga Zabaldus Kooperatiba Elkarteak langileak da, bertako kontseilu errektoreko kidea eta lehendakari or-

«Enpresa sozialak jendarteari lotuta gaude, lan egiten dugun jendartearekin konektatuta gaude eta ez dugu irabazi asmorik. Etekinak berriz inbertitzen ditugu jendarte horretan»

dira... «Ardura hartzea ezinbestekoa ikusten dugu. Hezitzaileak, gainera, erreferenteak gara eta lan horietan parte hartzen dugu, ikus dezaten talde lanaren garrantzia. Hau guztia aurrera ateratzea denon ardura da, denok bultzatu behar dugu. Gure mezua da: zuk egin behar duzu eta, ezin baduzu, gu laguntzeko gaude, zuk bakarrik egiten ikas dezazun», gaineratu du Larrañagak.

«Ehortzen diren egunetik alde egiten duten egunera sekulako aldaketa ematen da beren jarreran. Hizkuntzari dagokionez beharala ikasten dute. Sekulako interesa dute eta ahalegin handia egiten dute. Hezitzaileekin harremana ere asko aldatzen da; hasieran ez dizute begietara begiratzen eta pixkanaka gerturatzen joaten dira. Uban egun osoa besarkadak eta muxuak banatzen ematen dugu. Oso pozgarria da garapen hori ikus-tea», nabarmendu du Maillok.

Uba zentroko programak malgua izan behar du derrigor, gure jendartea den bezain malgua. «Finean, gizartea etengabe aldatzen ari da eta gure programak aldaketa horiei erantzun behar

die, adin txikikoak gizarte horretan integratzea baita asmoa», gaineratu du Larrañagak.

Bistan da adin txikiko horiekin egiten den lanak arrakasta izan dezan beharrezkoa dela jasotuen jendarteak bere alde-tik ere jartzea. «Egia da gazte horiek urte askotan estigmatizatuak eta markatuak egon direla eta jende askok mesfidantzaz begiratzen diela. Baina azken urteotan komunitatearekin esperientzia oso positiboak izaten ari gara eta lan handia egiten ari da jendartea. Gazte-txoak errespetu handiz gerturatzen dira eta asko eskertzen dute harrera on hori».

Ubako egonaldia amaituta, adin txikiko gehienak Aldundiaren sarearen baitako emantzipazio etxeetara joaten dira. «Portaera arazoren bat dutenak zentro espezializatu-etara bideratzen dira. Baina gutxiengoa da hori. Iaz, adibidez, bi edo hiru adin txikiko baino ez ziren baliabide horietara bideratu».

LARRIALDI EGOERAN DAUDENAK

Uban larrialdi egoeraren bat bizi duten haur autoktonoak ere hartzen dituzte. «Haurrok badi-



Inoren kargu ez dauden adin txikiko migratzaileak oso nahastuta iristen dira hasieran.
GAUR8

tuzte erreferente familiarrak, baina etxean larrialdi egoeraren bat gertatu da, gatazka larriren bat, eta zerbitzu sozialek haurrak etxetik ateratzea erabaki dute», agertu du Maillok.

Haur horiek txikiagoak izaten dira, 0-17 urte bitartekoak, eta beren etxetik atera egiten dituzte, ez da haien erabaki bat izaten. «Adin txikiko migratzaileen egoera oso gogorra da, baina haiek erabaki dute bidaia hau abiatzea. Haur autoktonoen kasuan, ez dute hemen egon nahi, baina ez dute beste erremediorik. Abiapuntua desberdina da». Haur autoktonoen kasuan, egonaldia bi eta lau aste bitartekoa izaten da eta neskak eta mutilak kopuru parekoetan iristen dira. Kasu askotan, gainera, familia bereko kide bat baino gehiago izaten da Uban.

«Kasu hauetan hurrekin lana egiteaz gain, etxekoekin ere esku hartze bat egiten dugu, gatazka sortu duen egoera hori konpondu nahian. Batzuetan aste pare batean haurrak etxera bueltatzen dira, hezitzaileen laguntza alboan dutela. Berez helburua hori izaten da, haurrak familiara bueltatzea. Baina, batzuetan, ez da posible izaten eta

dea. Uban egiten du lan hezitzaile modura eta bi garaiak ezagutu ditu, kooperatiba izan aurrekoa eta ondorengoa. «Aldaketa handiena egituran izan da, bertikaltasunetik horizontaltasunera pasatu gara. Eta horizontaltasun horrek gertutasuna dakar; talde lana, parte hartzea, guztion artean eraikitzea, elkarren arteko zaintza... lantaldea oso sendo sentitzen da eta ideia asko ditu eguneroko jarduna hobetzeko. Talde bateko kide sentitzen zarenean, sentsazioak askoz hobeak izaten dira. Proiektuaren parte sentitzeak profesional bezala bete egiten zaitu, ase, eta horrek ilusioa sortzen du». Eta hezitzaileen eguneroko lana ikusita, ezin-

bestekoak dira ilusioa eta gogoia, egoera kaskarrean eta babesik gabe dauden adin txikikoekin lan egitea ez delako samurra.

«Hezitzaileak buruz sendo egotea eta indarrez sentitzea ezinbestekoa da egunerokoan. Haurrak puskatuta iristen dira zentrora. Gehienetan beren egonezinak, beldurrak, zalantzak, urduritasuna... hezitzaileak jasotzen ditu eta horiek kudeatzen lagundu behar dio. Gainera, gatazka egoera berrituz hori bizi duen familiarekin ere lan egiten dugu. Gure eguneroko lana da eta askotan ez gara kontziente karga horrekin, baina hor dago. Alderdi horretatik ezinbestekoa da talde lana. Egun batean hezi-

«Haurrak puskatuta iristen dira. Gehienetan beren egonezinak, beldurrak, zalantzak, urduritasuna... hezitzaileak jasotzen ditu eta horiek kudeatzen lagundu behar dio»

tzaile bat baxu samar sentitzen bada, taldeak laguntzen dio altxatzen. Lan gogorra da eta taldeak asko laguntzen du», iritzi dio Larrañagak.

Uba harrera zentroan oso garbi ikusten omen da errealtate latz bat: adin oso goiztiarretan ematen den babes falta batek pertsona horren bizitza osoa baldintza dezake. «3 urte zituela muxuka jaten zintuen haur zoragarri hura 17 urte dituela berriz topatzen duzune-

an, jendarteak baztertzen duen horretan guztian bihurtuta, eta bizitzaz ezer espero ez duela, lur jota geratzen zara. Gazte batzuk beren bizitzan akaso inoiz zoriontsu ez direla izango konturatzen zarenean, sekulako kolpea hartzen duzu. Min asko egiten dit konturatzeak jaio zaren tokiak eta tratatu zaituzten moduak zure bizitza guztia baldintza dezakeela», aitortu du hezitzaileak.

Gagok gaineratu duenez, «atxikimendua» oinarritzkoa da. «Haur horiei toki seguru bat eskaintzen diegu, konfiantza ematen dieten helduekin eta, era berean, arauak eta mugak zer diren erakusten saiatzen gara. Maitasuna eta babesa garrantzitsuak dira, baina baita arauak eta mugak ere. Hemendik pasatzen direnean, badakigu zerbait ikasten dutela. Gero beste zentro batzuetara bideratzen dituzte eta zentro horietan balio berdinak lantzen dituzte. Hori oso garrantzitsua da. Zorionez, adin txikikoen babeserako sistemak oinarri sendoak ditu eta profesional bikainak ari dira bertan lanean». Atxikimendua garrantzitsua da

haur horiek bestelako baliabide-etara bideratzen dituzte Ubatik», agertu du Maillok.

Haur hauek egoera bortitzean iristen dira Ubara. Beren etxetik ateratzen dituzte, batzuetan desorduetan, eta oso beldurtuta eta amorratuta iristen dira. Negar eta negar, besterik ez dute egiten hasieran. «Hasieran eustea izaten da gure lana. Hautsita etortzen dira, babesik gabe sentitu dira beren familian eta ondoan egotea da garrantzitsua», esan du Maillok.

Haserrea, amorrua, tristura, ezin ulertua... haur horien prozesuak fase desberdinak pasatzen ditu. «Hezitzaileak badaki etapa desberdinak biziko dituela haurrak. Hasieran normala da amorrua sentitzea eta askotan amorru hori hezitzailearen kontra jaurtitzen dute. Beste etapa batean barrura begira dago haurra, sufritzen. Batzuetan haurrak errealitateari ihes egiten dio, gertatzen ari dena bere arazoa ez balitz bezala... Era askotako haurrak daude eta bakoitzak bere modura egiten dio aurre muturreko egoera horri. Hezitzaileak adi eta prest egon behar du», gaineratu du Koldo Loran hezitzaileak. Kasu hauetan hau-



Goiko argazkian, Uba harrera zentroan aritzen den lantaldearen zati bat. Guztira 45 hezitzaile daude bertan lanean. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

rrak eskolatuak egoten dira eta garrantzitsua izaten da beren errutinari eustea. «Beren eguneroko bizitzak berdin jarrai dezan saiatzen gara, ez dadila hausket handia gertatu. Ez da samurra izaten, familia ere inguruan izaten delako. Eskolari informazioa

helarazten zaio eta familiarekin lan handia egiten da. Bisitak ere izaten dira. Saiatzen gara familiarekin bitartekari lana egiten egoera bideratu ahal izateko», esan du Maillok. «Azken helburua Ubatik pasatzen diren adin txikikoak pertsona bezala ahalik

eta ondoen garatzea da, eta horretarako tresnak jartzen ditugu haien eskura. Baina garrantzitsua da bakoitzaren egoera eta faseak errespetatzea», segitu du Loranek.

Uba zentroko hirugarren programa, esan bezala, neurri judi-

zialen pean dauden eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dauden adin txikikoen jarraipena egitea da. «Kasu bakoitzaren jarraipena egiten dugu eta ahalik ondoen konpontzeko bideak jartzen saiatzen gara», bukatu dute hezitzaileek.

bai haur autoktonoen kasuan eta baita bakarrik iristen diren gazte migratzaileen kasuan ere. «Familiaren babesik gabe etortzen dira ezagutzen ez duten gizarte batera, erabat arrotza zaien kultura batera. Daukaten erreferentzia bakarra, Mendebaldeko sistemara sartzeko daukaten ate nagusia, hezitzaileak izaten dira askotan. Horregatik da oso garrantzitsua atxikimendua lantzea», gaineratu du Gagok.

Eta atxikimendu hori era egokian eskaintzeko hezitzaileak berak sendo, seguru eta gogotsu egon behar du. «Gure enpresaren jabeak gara, gure proiektuaren gidariak eta horrek sekulako indarra ematen digu eguneroko lanean eta etorkizuna irudikatzerakoan. Kooperatiba sozialaren erduan sinisten dugu eta hori igarri egiten da gure eguneroko jardunean», nabarmendu du Larrañagak.

«Gure enpresaren jabeak gara, gure proiektuaren gidariak eta horrek sekulako indarra ematen digu eguneroko lanean eta etorkizuna irudikatzerakoan»



HITHEM ABDULHALEEM

PSIKOLOGIAN DOKTOREA, JATORRIZ PALESTINARRA

«Bestearen tokian jartzeko gaitasuna ez ezik, bestearen berezitasun kulturalak ulertzeko gaitasuna ere bada enpatia»

Donostiako Uba harrera zentroko egonaldiak laburrak izaten dira eta etengabe iristen dira bertara inoren kargu ez dauden adingabe migratzaileak. Adingabe horien jatorria askotarikoa da, baina gehienak Afrika iparraldetik etortzen dira eta musulmanak dira. Hithem Abdulhaleem Psikologian doktorea da, Deustuko Unibertsitatean irakasle dabil eta asteen bitan Uban izaten da, bertan dauden gaztetxoei aholkularitza eta babesa eman asmoz. Aitua da Euskal Herriko komunitate islamiarrean eta datozenen berezitasun kulturalak eta erlijiosoak eta bertan daudenenak josten saiatzen da, elkarbizitzaren mesedetan.

Zer-nolako esku hartzea egiten duzu iristen diren gaztetxoekin?
Iristen direnean nahastuta egoten dira eta zalantza handiak izaten dituzte beren egonaldiaz eta etorkizunaz. Horrek guztiak ezinegona sortzen die eta ez dira eroso egoten. Horregatik, beharrezkoa dute orientazioa eta aholkularitza emango dien norbait. Lehen unean beren galderak erantzuten saiatzen naiz eta egoitza honetan beren eskura duten zerbitzu psikologikoaren berri ematen diet.

Zein hizkuntzatan aritzen zara gaztetxoekin?
Normalean hizkuntza arabiarrean eta baita gazteleraz ere. Haiek hizkuntza arabiar klasikoa ulertzen dute, baina, normalean, dialekto magrebtarra hitz egiten dute. Afrikako iparraldean nagusiki erabiltzen den hizkera arrunta hori da. Eta ahal dudan guztietan gaztelerazko hitzak sartzen ditut elkarriketan, haien integrazio prozesuan laguntzeko. Tamalez, oraindik ez dut euskara menderatu. Badut horrekin arantzatxoa.

Adin txikikoak dira eta bakarrik iristen dira berearen erabat

desberdina den kultura batera.
Hasieran oso galduta egoten dira. Ingurune arrotza zaie eta bertan mugitzeko tresnak eta baliabideak falta zaizkie. Horrek guztiak estresa eta antsietatea sortzen ditu, zalantza handiak egonaldiaz eta etorkizunaz. Bakoitzak bere proiektu migratzaile propioa eta espektatibak dituen arren, orokorrean beren egoera juridikoak asko kezkatzen ditu, herrialde arrotz batean existitzeko modu bakarra egoera hori erregulatzea baita. Eta existitzen badira bakarrik egin dezakete aurrera beren bide migratzailean.
Beren zalantzak argitzen saiatzen gara, beti kulturartekotasuna ardatz hartuta. Harrera egiten diegun pertsonen ezaugarri kulturalak eta konfesionalak aintzat hartzen ditugu eta iritsi diren gizarteko berri ematen diegu. Enpatia lantzen dugu, tresna ezinbestekoa baita edozein esku hartze psikologiko egiteko orduan. Enpatia ulertzen dugu ez bakarrik bestearen egoera ulertu eta haren tokian jartzeko gaitasun modura, baita bestearen berezitasun kulturala ulertzeko gaitasun modura ere.

Azkenaldian jendartearen kezka zabaltzen ari da jihadismoarekin. Horrek zaildu egin dezake jatorri islamiarra duten adin txikikoen integrazioa, ezta?
Hemen zentroan bakarkako saioak egiten ditugu eta baita taldekakoak ere. Taldeko saio horiek ez dira terapiak izaten, gai desberdinen inguruko solasaldiak baizik. Harrera egin dien jendartearen nola integratzen ari diren eta zein arazo topatzen dituzten aipatzen ditugu saio horietan eta maiz agertzen dira mahaiaren gainean haien tradizioak eta gatazka erlijiosoak. Solasaldi horietatik abiatuta, zentzu kritikoa lantzen saiatzen gara gu. Edozein pertsonak garatzeko eta aurrera egiteko ezinbesteko tresna du zentzu kritikoa.





EXPRAI

{

iRRITZIA:



EZETZ!
EZ NAIZELA
ISILDUKO!

MORDORREKO NEGU
LUZEARI EZIN EUTSI EGON
NAIZ, UDA NOIZ IRITSIKO
ZAIN, BEROAGATIK
MARMARKA HASTEKO!

SIKIERA
MAUKAK
BILDU
ITZAZU!

KIA!
ETA KEXATZEARI
UTZI? ORAINGO
GAZTEEK EZ
DAKIZUE EZER!

EXPRAI
2017

ONGIETORRI-OPARI
bat ospatzeko

Karlos Arguiñano

GARA TXARTELA atera dugu

Abantailak:

- **Promoziok**
GARA TXARTELA dutenentzat bakarrik.
- **Deskontuak**
Naiz dendan edo egunkariarekin batera saltzen diren produktuetan.
- **Sarrerak**
Jaialdi, kontzertu, kirol-ekitaldi edo museoetara joateko.
- **Erosotasuna**
Ez duzu kupoi gehiago moztu eta kartilletan itsatsi behar izango. Nahikoa izango duzu GARA egunkaria erostera joaten zarenean GARA txartela zure kioskoko irakurgailutik pasatzearekin.

**Eta beste
abantaila asko
eta asko!**

GARA egunkariaren **irakurle mota guztientzat irekita** dagoen txartela da. Txartelarekin, egunkaria eroste hutsarekin abantaila asko lortuko dituzu.

**Izan zaitez
komunitateko kide!**



Zure GARA TXARTELA lortzeko, **uztailaren 2an** 7K igandeko aldizkarian argitaratuko dugun eskaera bete beharko duzu.

BOTILA BAT OPARI: txartela eskatzeagatik, **K5 txakolin** eksklusiboa jasoko duzu (botila bat).

GARAKO HARPIDEDUNA BAZARA

Zure egungo harpidedun-txartela ere GARA TXARTELA da. Ez duzu beste bat eskatu behar. K5 txakolina ere jasoko duzu. Nola lortu behar duzun jakiteko, informazio guztia bilduko duen e-mail bat bidaliko dizugu ekainaren 18an. GARA TXARTELA erabiltzen duten irakurleen abantailaz gain, % 5eko deskontua izango duzu egunkaria kioskoan erostean, eta XXL doako harpidetza digitala lortuko duzu. Gainera, promozioak beren deskontuekin eta bidalketa-gasturik gabe jaso ahal izango dituzu. Halaber, gogorarazi nahi dizugu beste abantaila batzuk ere izango dituzula, hala nola astero hainbat ekitalditarako sarrerak lortzeko aukera Harpidedunen Txokoan. www.naiz.eus/harpidedunentxokoa



Argazkiak: IKORKOTX



IKUSMIRA

ENEKO, BERE FINEAN, ETXEAN BEZALA

Eneko izeneko jatetxe berria inauguratu du Eneko Atxak Larrabetzun, Gorka Izagirre upategiaren gainean eta hiru Michelin izar dituen Azurmendi jatetxe distiratsuaren azpian. Sukaldariak zuzenean aritzen dira lanean, bezeroen begi-belarri-sudurren parean, zentzumen guztiak tente jartzen dituen esperientzia patxadatsua eskainiz. Patxadatsua, bere fintasunean mahaikoa etxean bezala sentitzea lortzen duelako, lasai eta zentzu guztiak esna, goatzeko pronto. Eneko Atxak dio jende guztiak ezin duela Azurmendira gerturatu, esperientzia zabala zabalegia delako poltsiko batzuentzat. Erdibideko aukera bat izan nahi du jatetxe berriak, berta-bertako zaporeekin jositako proposamen tentagarria. Begiak itxita disfrutatzekoa. amagoia.mujika@gaur8.info



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Topikoak

Sargoria azalera itsatsi zai-
gu eta berunezkoa da ai-
rea; arnas kolpe bakoitza
behin eta berriz murtxika-
tzen dute gure sudur-min-
tzek. Surflariak dantzan
dabiltza beren oholetan Zurriolako
ertz bateko apar zurietan eta inu-
rrien gisan pilatu dira bainujantzidu-
nak hareatan, nork bere toalla kolo-
retsuaekin etxe bat eraiki nahiko
balu bezala. Uda iritsi da bere aire
ezarekin, bere sargori astunarekin, eta
arindu egin dira egunkariak, oporreta-
ra doaz albisteak eta hondartzen eta
jaien inguruko gehigarriak irakurtzen
ari da petrilean eseritako agurea. Sa-
gues begi-kolpe batekin aztertu dut.
Gogoan dauzkat gaztetxotan Aste Na-
gusian hemen bizi izan genituen kon-
tztuertuak: lehendabiziko kalimotxoak
eta jende pilaketak eta gurasoekin ne-
goziazio prozesu gogorren ondoren
adostutako itzulera orduak. Gaur ez
dago oholtzarik. Turistak hara-hona
dabiltza beren argazki kamerekin eta
ozen hitz egiten dute, ulertzen ez ditu-
dan hitzak ulertzen ditudanekin na-
hasten dira eta hizkuntzak, eguzkitako
krema usainak eta sudurretik sartzen
den berunezko airea pilatzen dira nire
zainetan. Bero egiten du.

**Aurten ere iritsiko da Aste Nagusia
eta La Oreja de Van Gogh etorriko da
hona, eta Los Secretos, Los Manolos,
eta abarrak. Gozategi izango da eus-
karaz kantatuko duen talde bakarra.
Lagunekin hona etortzen ginen ga-
raietako eztabaidekin oroitu naiz:
euskal kultura ez dela saltzen eta
euskal kultura aspergarria dela eta
mundura zabaldu beharra daukagu-
la.** Eta erantzungo nuen euskal musika
anitza dela, ahots eta estilo asko dau-
dela, baina ezetz esango zidaten, “eus-
kal” gehiago dela “musika” baino. Eus-
karaz dakien mediku onik ez dagoen
mitoarekin akordatu naiz. Eta pentsa-
tu dut ederra dela mundura zabaltzea,
munduko talde onenak gurera ekar-
tzea. Baina “mundua” eta “gaztelera”
sinonimotzat hartzea ez dakit ez ote
den itxikeria sintoma. Eta petrilean
egunkaria irakurtzen ari denari begira

orain dela egun batzuetako notizia
ekarri dit sargoriak azalera: terroris-
moaren beldurrez euskaraz ikasi ez zu-
ten ertzainena. “Terrorismoa” eta “eus-
kara”. “Mundua” eta “gaztelera”.
Harrigarria da hitz batzuk nola erans-
ten zaizkien besteei, eta nola bata esa-
teak bestea ere esan nahi duela sines-
tera heltzen garen. Gaztelarak GALik
izan ez balu bezala, konkistatzaile-
rik izan ez balu bezala, diktadurarik izan
ez balu bezala. Baina gaztelarak joan
zen mendean hona etorri eta fabrike-
tan goizetik gaueraino lanean aritu eta
Euskal Herria bizitzeko modu berriak
erakutsi zizkiguten langileak ere badi-
tu, Lorca ere badu, “Los lunes al sol”
ere badu; milioika ahots ditu gaztele-
rak eta haietako bakoitzak definitzen
du. Baina euskarak ahots bakarra du
nonbait; indarkeriari lotua, modernoa
ez dena, salgarria ez dena, mundurako
balio ez duena. Hizkuntza hitzunok
egin beharrean hizkuntzak hitzunok
eginingo bagintu bezala.

**Beroa azalera eta pentsamendura
itsatsita daramat eta Saguesetik
Kursaal aldera abiatu naiz bete-bete
eginda dagoen espaloian barrena.
Jendea dabil toalla bizkarrean hartu-
ta, jendea hizketan, jendea izozkia
janez, jendea egunkaria besapeetan
hartuta, jendea jendea eta jendea;
eta turistek beren argazki kamere-
kin harrapatzen dituzte Zurriolako
ilunabarra eta olatuak eta hondartza
betea eta gu, gu ere argazki kamere-
kin harrapatzen gaituzte lauburu
bihurtuta, txapela eta abarka bilaka-
tuta, tokiko topiko, esanahiz gabetuta,
hizkuntza berezi batean mintzo arren
munduari ezer esateko ez dugunak;
guk gure buruari kontatzen dizkiogun
gezurrak erakusten dizkiogu gugana
datorrenari eta ulertzen ez ditudan hi-
tzen eta ulertzen ditudanen eta bero-
saparen artean zerbait oihukatu nahi-
ko nuke; banaizela esan, banabilela.
Baina bero astunak arindu ditu egun-
kariak. •**



Inurrien gisan pilatzen dira bainujantzidunak Zurriolako hareatan.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Nerea Ibarzabal Salegi

Lumaren pisua

Heteropatriarkatuak “emakumeak jipoitzea gaizki dago” esaten ikasi duen moduan, beste hainbat baldintza onartu behar izan ditu bere biziraupena ziurtatzeko, tartean “homofobia txarra da” edo “lesbianak eta gayak errespetatu behar dira” bezalako premisak.

Baina sistema honek galdutako lursail bakoitzeko berreskuratzen du beste bat, eta gogorarazten dizu zeintzuk diren zure askatasunaren baldintzak, benetan inporta dutenak, azken finean.

“Lumafobia” kontzeptuaren berri izan dut duela gutxi, Yogurinha Borovaren kantu baten bitartez. Hitza ezagutu ez arren, erraz identifika dezakegu zer den ondorengo esaldietan: “Homosexuala zara? Ba ez zaizu nabaritzen”, “Gaya izatea ondo dago, baina marikoia...”, “Begira maritxu, *lokaza, pasiba...* hori”, “Beharrezkoak dira keinu horiek?”... Barruko LGBTIfobia aitortzearen pista bat baino ez da lumafobia, edo teknikoago esanda, gayen jarrera femeninoak nahiz lesbianen maskulinoak ez onartzea. Hau da, gay izan zaitezkeela, baina ez “gayegi”; izan zaitez behar bezalako gizon/emakume bat –ez bien bitarteko ezer–, aurkitu bikote egonkor bat, izan serioa, utzi zure sexualitatea intimitaterako, ez purpurina, ez karroza, ez lakarik. Tolerantzia eta eskubideak eskaini zaizkizu, beraz, ez egin trabarik heteronorman.

Eta gaitz erdi lumafobia heterosexualetara mugatuko balitz soilik; tamalez, LGTBI kolektiboaren barruan ere hedatua da jarrera hau. Jendea ezagutzeko aplikazioetan, esaterako, ohikoa da honelako esaldiak irakurtzea hainbat profiletan: “Mutil maskulinoak bakarrik, ‘marikonarik’ ez”; gustu kontu xume batetik harago doala esan daiteke. Cal Strodek Erresuma Batuan eta Kalifornian egindako ikerketa baten arabera, euren burua “lumarik gabeko gay” bezala definitzen dutenen %37k uste dute “lumadunek” homosexualen irudi txarra sustatzen dutela. Datu gehiago ere azaleratu zituen, tartean “lumarik gabekoak” gainerakoek baino homofobia eta diskriminazio egoera gutxiago jasan dituztela, %33 gutxiago zehazki.

Zer da orduan gizarteak benetan zigortzen duena, genero berekoak gustatzea edo norbere generoari dagozkion rolak ez betetzea? Zer azpimarratzen da kaletik “bollera” edo “marika” oihukatzen badigute, inori eskutik helduta joan gabe ere? Eta oraindik beraien sexualitatea deskubritu ez duten haurrek bizi duten jazarpen LGTBfoboak, zein azalpen du? 2012an FELGTBek –Lesbiana, Gay, Transexual

eta Bisexualen Estatu Federazioak– kaleratutako ikerketa batek erakusten du Espainiako gazte LGTBien %57k jasan dutela diskriminazio egoeraren bat eskolan; Saph Rodriguez izan zen horietako bat, eta bere hitzak jaso zituen El-diario.es-ek: «Jazarpena jasan nuen ez nituelako ezarritako normak jarraitzen, eta irainen artean beti zegoen ‘lesbiana’ hitza. Baina ni nire sexualitateaz beranduago ohartu nintzen, 17 edo 18 urterekin». Horra, lumaren pisua.

LGTBI kolektiboko pertsona askok luma ezkutatzaren ikasi dute, lanean, etxean edo kalean arazorik ez izateko. Ez da harritzekoa, Hego Euskal Herrian 23 eraso homofobo zenbazu ziren 2014an, eta aurten ere hiruren berri izan dugu oso denbora tarte laburrean –eta salatu gabeak, auskalo–. Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-sisteman LGTBIfobia neurtzeko egindako ikerketaren emaitzak ere, izugarriak: EAEko nerabe gehienek ez dute jendaurrean kolektiboko pertsonen aurkako adierazpenik egiten, baina “deseroso” senti daitezke lesbianen eta gayen aurrean, edo sexu bereko pertsonen arteko maitasun-adierazpenen aurrean “atsekabea erakuts dezakete”. Eta hori 2017ko maiatzean, adi.

Horrez gain, ikerketa askok islatzen dute luma duten mutil homosexualek eta bisexualek presio handiagoa

Emakumearen antza duen gizon maritxuak «akats» doblea egiten du; baina, bestalde, orokortuago dago lumadun gizonezkoaren irudia medioetan eta egunerokotasunean

jasaten dutela luma duten emakume lesbiana eta bisexualek baino, emakumearen antza duen gizon maritxuak “akats” doblea egiten duelako. Baina, bestalde, orokortuago dago lumadun gizonezkoaren irudia medioetan eta egunerokotasunean –“Aida”, “Modern Family”...–. Lesbianen kasuan, ekoizten diren telesail eta pelikula gehienetan gorputz eta izaera heteronormatiboak dituzten emakumeak azaltzen dira, lumarik gabek eta enkajatzen dutenak –“The L World”, kasu–. Izan ere, emakumeari bere sexualitate propioa ere ukatu bazaio, nola onartu normatik ateratzen den sexualitatea izatea?

Horregatik da neurrigabea lumaren indar iraultzailea, jendearen tripetan hazkura eta ezinegona eragiten duten gauza guztiena bezala. Yogurinhak diosku: «zure lumak traba egiten badie, sar iezaiezu!». •

IPARRORRATZEN AGURRA

Ziklo baten aitzindari izan diren futbolariak

 **KIROLA** / Ane URKIRI ANSOLA

Belaunaldi bat markatu duten XXI. mendeko emakumezkoen futboleko ikurak dira. Aintzane Encinas, Eli Ibarra, Iraia Iturregi, Maite Lizaso eta Irune Muruak, ibilbide ezberdinak izanik ere, euskal futbolaren historian arrasto galanta utzi dute. Iparrorratzak izan dira. Ziklo baten aitzindari

izan ziren bere garaian (Athleticen eta Realaren jaiotzan, 2002 eta 2004an), hesi asko gainditu zituzten, emakumezkoen futbolak izandako hobekuntzen protagonista nagusiak izan dira, beti aldarrikapenekin loturik, eta 2017ko ekainaren 30ean ibilbidearen amaiera ezarriko dute bost jokalariek. Gauza batean bat datoz guztiak: harro doaz.



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ELISABETH IBARRA RABANCHO

«Beste eginkizun bat izan dut eta zaila egin zait»

Eli Ibarraren (1981, Azkoitia) ezker oina Athleticen hainbat gol ospakizunen erantzule izan da. Athleticen sorkuntzatik defendatu du elastiko zuri-gorria eta bera da talde bizkaitarrarekin garaikur gehien irabazi dituen jokalaria; bost liga, guztira. Azken denboraldietan minutu gutxi jokatzeko eta inoiz baino lesio gehiago edukitzeak –

«txikiak izan diren arren, sasoian jartzea zaildu didate»-erretiratzeko erabakia hartu behar zuela ohartzera eraman dute Ibarra. Lezamako ezker hegaleko ikur bilakatuta esango dio agur futbolari.

Nola gogoratzen duzu zure ibilbidearen hasiera?

Nire familian anaia eta aita

futbolariak izan dira eta etxean, betidanik, futbol asko ikusi dut. Nire amak esan izan didanaren arabera, txikitatik, oraindik ibiltzen jakin gabe ere, eskuetan baloia izaten nuen. Ikastolan eskubaloia, saskibaloia, eta areto futbolean ibiltzen nintzen eta 13-14 urterekin erabaki behar izan nuen. Futbola nuen gustukoena eta horrela hasi zen nire ibilbidea.

1995etik futbolean, 15 gorengo mailan. Nola laburbilduko zenuke ibilbidea?

Oraindik ez naiz kontziente. Hemen, Athleticen, 15 urte igaro ditut eta urte asko dira. Hemendik urte batzuetara, segur aski, garrantzi handiagoa emango diet zenbaki hauei.

Ia 15 urte bete dira zure debutetik. Nola oroitzen duzu duzu?

Gogoratzen dut Lezaman jokatu nuela, ligako aurreneko neurketa izan zela eta 7-1 irabazi geniola Torrejoneri. Gola sartzeko zortea ere izan nuen. Gogoratzen dut Lezama bete-beteta zegoela. Athleticen emakumezko taldearen lehenengo partida zen, jende asko hurbildu zen eta egun berezia izan zen.

Hasieratik sentitu al duzu afizioaren maitasuna?

Bai. Orain ere kalean noanean jendeak ezagutu egiten nau eta niretzat hori oso polita da. Ikastoletara joaten garenean ere umeen zoriontasuna eragiten duzu eta garrantzitsu sentiarazten zaituzte. Oso garrantzitsua da.

Azken urteetan ez dituzu minutu asko jokatu.

Nire ibilbide guztian ez ditut lesio asko eduki eta azkenengo denboraldi hauetan agertu egin dira. Ez dira izan hain garrantzitsuak, baina geldirik eduki naute eta gero berriro fisikoki ondo jartzea kostatzen zitzaidan. Azken urte hau gogorra izan da. Beste eginkizun ezberdin bat izan behar duzu taldean eta zaila egiten da. Nolanahi ere, nire taldekideei laguntzen ahalegindu naiz.

Aurten Champions-a jokatzeko aukerak erretiroa atzeratu du?

Liga bat irabazteak jarraitzeko indar handiagoa ematen dizu. Championsa jokatzeko, European zehar aritzea, berezia izango zela banekien. Urtero gogotsu ekin izan diot denboraldi-aurreari, nahiz eta azkenaldian urtea nekatuta amaitzen nuen.

Bederatzi urte igaro ziren laugarren liga eta bosgarrenaren artean. Helburu bezala jarri zenuen azkeneko urteetan?

Azken urteetan gertu ibili gara, San Mamesen galdutakoa, adibide. Erreginaren Kopan ere bi final galdu genituen. Urtero gure helburua goian ibiltzea zen, eta guk ezinezkotzat jotzen genuen hainbeste alditan bigarren geratzea. Horregatik, iaz irabazitako Ligak suposatu zuen irabaztea posible dela, lan, esfortzu eta gure filosofiarekin. Gainera, hasieran irabazitako txapelketetan ere talde indartsuak zeuden, baina esango nuke iaz irabazitakoa ere bereziagoa izan zela.

Zer eman dizu Athleticen?

Dena. Ordu asko sartzen ditugu elkarrekin, bizitza mota bat da. Jokalari asko gara, aste oso batez bizi gara elkarrekin eta egunero gauza asko ikasten dituzu.

Eta zer eman diozu Athletici?

Nik uste dut asko eman diodala, baina hori beraiek esan beharko dute [barre artean]. Harro noa.

2002an heldu zinenean irudikatzen zenuen bezalakoa izan da ibilbidea?

Inoiz ez duzu pentsatzen noraino helduko zaren. Azken bi edo hiru urteetan pentsatu izan dut noiz helduko zen agur esateko ordua eta zaila egiten da. Baina ez dut inoiz irudikatu hainbeste liga irabaziko nuenik.

Askok kostatu zaizu agur esateko erabakia hartzea?

Bai, baina pasatu dudako urtea gogorra izan da eta, azkenean, norbera konturatu behar da uzteko ordua iritsi dela.

MAITE LIZASO CAMPOS

«Ezin dut gehiago belaunarekin, futbola uzteko abisua eman dit»

Belauneko lesioak bere futbol ibilbidea tratatzen saiatu diren arren, Maite Lizasok (1983, Zarautz) 21 urtean futboleant aritzea lortu du; Zarautzen hasi eta azken hamahiru denboraldiak Realean eta Athleticen eman ditu. Euskal Selekzioaren elastikoarekin neurketa gehien jokatu dituen jokalaria da (sei, guztira). Zarautzen, Zubietan zein Lezaman zelai erdiko gudaria izan da Lizaso, itzaleko lana eginez eta burugogorkeriak gidaturik. Urte gorabeheratsuak ere igaro ditu, baina garrantzia kentzen saiatzen da. Segurtasuna eta zintzotasuna islatzen du, zelaian legez. Hainbeste amesten zuen titulua besapean, eta harro, uzten du futbola, inoiz ase ez duen arren.

Ibilbidearen amaiera honetan, nola sentitzen zara?
Ondo. Hainbeste urtean futboleant jokatu ostean, nik uste dut erabaki zuzena hartu dudala. Batez ere, niretzako onena den hautua egin dut. Guztiei iristen zaie momentua eta nirea iritsi da. Ez dut gehiago luzatu nahi.

21 urtean aritu zara futboleant. Nola gogoratzen duzu hasi zineneko urte hori?
Ia guztiak bezala, hondartza-futboleant hasi nintzen ikastolako lagunekin. Zarautz Kirol Elkartean hasi nintzeneko izugarritzko oroitzapenak ditut. Iruditzen zait inoiz ez dugula ahaztu behar nondik gatozen. Han zortzi urte pasatu nituen eta han ikasi nuen guztia. Realera joan nintzen ondoren, bertan 10 urte egin nituen, beste mila gauza ikasi nituen eta azkenean hemen bukatu dut, Athleticen, oso zoriontsu.

13 urte pasatu dira Realarekin

debuta egin zenuenetik. Nekagarri egin zaizkizu?
Ondo eraman dut. Azkenengo bi hilabete hauek, bai, astunagoak egin zaizkit. Gainera, ez geneukan ezer jokoan, eta apur bat gogorra egin zait. Giro politean ibili naiz urte hauetan, eta bidaiatzea ez zait inoiz inporta izan; beraz, ez zait hain nekagarria egin.

Lagunak eta familia osoa etorri ziren Lezamako azken neurketara. Omenaldi xumea, baina sentikorra?
Bai, oso sentikorra. Ez nekien ezer. Banekien familia zetorrela, baina ez lagunak. Eta kamisetaren detailearen ideiarik ez neukan. Niretzat omenaldirik handiena beraiek dira, ez dut ezer gehiago behar. Nik eta beraiek badakigu zenbat sufritu dudan, zenbat disfrutatu dudan eta horrekin nahikoa dut.

Realean 10 urte igaro zenituen, nahiko entzutetsuak bihurtu ziren azken urteak, eta atzeko atetik irten zinen. Nola eraman zenuen egoera?
Nik banekien Realean ez nuela omenaldirik izango. Realetik Athleticera etortzea mingarria izan zen. Beti esan dut eta beti esango dut: han pasatu ditudan 10 urteak nire bizitzako urterik onenak izan ziren eta ez nituzke ezergatik aldatuko.

Realean zenbiltzala urtebete zelaitik at eman zenuen. Zerbaitekin damutzen zara?
Ez zait gustatzen egindako gauzez damutzea. Une horretan horrela sentitzen zarelako egiten duzu. Urte hori horrela tokatu zen. Berriz egingo ote nukeen? Ez dakit. Nik uste dut pixka bat engainatu egin nindutela Realean. Hitzarmena sinatua neukan, baina

hitzez, sinatzeko orduan, esan zidaten ez zela arazorik egongo nik nahi nuenean joateko. Sinistu egin nuen eta ez zen horrela izan. Ziur, orain, buelta gehiago emango nizkiokeela horrelako beste egoera bat azalduz gero, baina damutu, ez naiz damutzen. Dena den, 10 urte horietatik ez naiz pasarte horrekin geratzen. Hurrengo urtean itzuli nintzen eta izugarritzko denboraldia pasatu nuen berriro ere; harreman onak gordetzen ditut. Beraiek asko eman didate eta nik ere asko eman diet. Ez daukat ezer txarrik esateko; guztiz alderantziz.

Zelaian itzaleko lanean aritu zara, agur esateko orduan ere itzalean mantendu zara.
Ni gustura nago bukatu dudan

moduan bukatuta. Ez dut ezer eskatuko, ez dut ezer espero eta oso harro nago hiru taldeetan pasatutako urteekin, baita Euskal Selekzioarekin jokaturako neurketekin ere. Daukadan pena bakarra da ez dudala jakin noiz izango zen Euskal Selekzioarekin jokatzeko nuen azken neurketa; izan ere, azken bi deialdietan ez naiz egon, ezetz esan dudalako belaunarengatik. Dena ezin liteke.

Athleticekin irabazitako Ligak zure ibilbidea apaindu du. Behar zenuen?
Buruan sartuta neukan, Realean jokatzeko nuenetik, zerbait irabazi behar nuela. Askotan titulu bat irabazi gabe ere beste gauza asko irabaz ditzakezu, baina nik gauza horiek irabazita neuzkan jada Realean. Eta banekien Realean tituluren bat irabaztea oso zaila izango zela.

Belauneko lau lesio larri pasatu dituzu. Nola altxatu zara?
Ez dakit nola altxatu naizen, egia esan. Min hartzen nuen eta jada ohitura modukoa bihurtu zen, bi lesio oso jarraian eduki bainituen.

Futboleant jokatu besterik ez nuen nahi; amorrua atera eta aurrera segitu nuen.

Lesioek ez dute lortu zu erretiratzea?
Ez, baina azkenengo bi urteetan min handiarekin ibili naiz. Neurketak jokatzeko beti ziztatu egin behar izaten nuen edo gauetan pilula hartu behar, neurketaren aurretik ere bai...

Bi urte horrela?
Bai, minik ez edukitzeko. Hitz egin nuenean esan nien belauna ondo edukiz gero jarraituko nuela. Berdin zitzaidan asko edo gutxi jokatu, entrenatzera etortzea eta lagunekin egotea gustatu egiten baitzait. Baina jada ezin dut gehiago, uzteko abisua eman dit.

Orain zer botako duzu faltan?
Futbolarekin ez naiz inoiz aseko, baina min handia pasatu dut azken bi urteetan eta agian ez dut hainbeste igarriko futboleant ez jokatzearen hutsunea. Aldagelako giroa eta talde baten barruan egotea botako dut faltan.



AINTZANE ENCINAS GOMEZ

«Garaipenik handiena ezagutu ditudan pertsonak izan dira»

13 urte eman ditu Realean. Taldearen sorkuntza gertutik ezagutu du Aintzane Encinasek (1988, Donostia). Kapitainaren besokoa eraman du 2011tik, Larraitz Lucasek utzitako testigua hartuta, eta zentzuz ordezkatu ditu Realaren balioak, zelaian eta zelaitik kanpo. Lesioekin zorte handia izan eta azken denboraldian partida askotan itzalean egon bada ere, 388 neurketa jokatu ditu elastiko txuri-urdinarekin. Orain, Encinas gabeko taldea ikustera ohitu beharko da afizionatu realzalea, bera hasia baita bere etorkizuna eraikitzen: «Gipuzkoako selekzioko kadeteekin lan-saio batzuk egon ditut, infantilen talde bat

ere eramaten dut, futbol eskola bat daukat [GABEN], taldeen zuzendaritzaren inguruko klaseak ematen ditut entrenatzaileen kurtsoan duela bi urtetik...».

Amaiera ona izan da?

Bai, oso hunkigarria. Negar asko egin dut. Baina irribarrea ere atera zait urte guzti hauetako momentuak gogoraraztean eta disfrutatzen ari naiz. Ez nuen azken neurketa iristerik nahi, baina era berean hau guztia amaitzea nahi nuen. Nik ez ditut botak zintzilikatuko, ezta gutxiagorik ere. Botak beti jantzita izango ditut, zelaian edo futbolaren edozein aldetan egonda ere.



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Iaz urte baterako luzatu zenuen kontratua. Agur usaina zuen hitzarmen horrek?

Iaz une batzuetan pentsatu nuen agur esatea. Ez da erraza hainbeste urtean elitean

egotea eta beti zure onena ematea. Oraindik ondo nengoela erretiratu nahi nuen eta Reala ahalik eta goren utzita. Horrela izan da. Joan den denboraldian urte baterako sinatu nuen, segur

aski azkena izango zela pentsatuz.

29 urterekin esan duzu agur, baina oso gazte hasi zinen Realean, 15 urte zenituela. Horrek eraginik izan du?

IRUNE MURUA CUESTA

«‘9’ zenbakia eraman dut eta eragin handia izan du psikologikoki»

Bigarren plano batean igaro da Iruñe Murua (1986, Barakaldo) Athleticen jokatu dituen 14 denboraldietan. 2003an UEFA Women's Cup-eko kanporaketan egin zuen debuta, 17 urterekin. Lau liga irabazi eta 106 gol sartu ditu guztira, baina umiltasunez erantzuten die datu horiei. Arantzarik ez zaio geratzen, nahiz eta zelaian ez duen jarraitutasun handirik eduki. Gainera, iaz eta 2014-2015 denboraldian lesioek zapuztu zioten urtea. Fokuetatik at ibili

da eta agurreko prentsaurrekoan ere buru-makur eta hitzik ahoskatu ezinik egon zen; «egoerak gainditu ninduen». Bere eginkizuna zuzen eta zintzo egin duen sentsazioarekin diosku agur.

Azken urteetako belauneko lesioek nola eragin dizute?

Ez didate hainbeste eragin, inoiz ez dut jarraitutasun handirik izan, eta psikologikoki ere ez ninduten asko mindu.

Osatu eta handik gutxira, ordea, meniskoko ebakuntza egin zizuten.

Denboran hain gertu izan ziren, ez zidala taldean sartzeko astirik eman. Nik uste dut horrela hobeto etorri zitzaidala; taldean bete-betea sartuta egon eta berriro lesionatzea baino. Niretzat lesioaren jarraipen bat izan zen, ez lesio berri bat.

Erretiroa aurrerarazi du?

Ez, inola ere ez. Lesioek ez dute

zerikusirik izan. Urte asko neramatzan hemen [Athleticen] eta ez dut futboleko jokatzeko jarraitu nahi.

Noiz hartu zenuen behin betiko erabakia?

Denboraldi hasieran jada pentsatua neukan. Urtean zehar aldaketa handia gertatu beharra zegoen erabakiz aldatzeko. Ez dut asko jokatu eta ez daukat geratzera behartzen nauen ezer.

Beste aurrelariak maila onean egoteak bultzatu zaitu agur esatera?

Yulema [Corres] eta Nekane [Diez] golak sartzen dabiltza, Erika [Vazquez] maila ezin hobean... Beraiekin lehiatzea ezinezkoa da eta ezin dut gehiago eskatu.

Zuk utzi duzu futbola edo

futbolak utzi zaitu zu?

Nik utzi dut. Jarrai nezake jokatzeko, ez naiz hain zaharra. Baina nekatutik nago, batez ere psikologikoki. Ezin dut gehiago. Fisikoki jarraitu nezake; hala ere, arintasun gutxiago igartzen da oinetan [barre artean]. Hau zen momentua.

14 urte igaro dituzu. Nola gogoratzen dituzu?

Hasieran ez nuen hitz egiten, oso lotsatia naiz. Lauzpabost urtean ez nuen hitz egiten eta gauza askotaz ez nintzen ohartzen. Hona [Lezamara] etortzen nintzen, lan-saioetan parte hartzen nuen, baina ez naiz oso ondo gogoratzen hasierarekin.

106 gol sartu dituzu.

14 denboralditan eta aurrelaria izanik... Ez dut inoiz hasierako

Nekagarri egiten da hainbeste urtean leku berean egotea. Eta horrek eragina du jokatzeko orduan eta alderdi guztietan. Benetako aldaketa gertatu behar den unea iritsi egiten da, zikloek amaiera dute. Nekeak eragin handia izan du nigan eta ondo egon nahi nuen erabaki dudana erabakitzeke.

Azken denboraldian ez duzu asko jokatu.
Egia da ez ditudala minutu asko izan, baina taldekideak ondo aritu direla ulertzen dut eta entrenatzaileak horien aldeko apustua egin du. Jokatu ditudan minutuetan nire onena ematen saiatu naiz eta hori egingo nuen zalantzarik ez zegoen, minutu guztiak edo gutxiago jokatu arren.

«Futbolari ohi» adierak zer esaten dizu?
[Barre artean] Ez dago mediku ohi, abokatu ohi edo horrelako adierarik. Futbolari ohiaren figura badago eta gustuko dut; ohorea da futbolari ohia izatea. Dena den, beste lanbide askotan ‘ohi’ hitza erabiltzen

ez den bezala, niri ere gustatuko litzaidake betiko futbolari izatea, ametsetan bada ere.

Eta entrenatzaile?
Entrenatzailea naiz eta izango naiz. Irakastea asko gustatzen zait, ikastea gustatzen zaidan bezala, are gehiago futbolaren bitartez. Nire bizitza beti egon da futbolarekin estuki lotuta.

Realarekin estuki lotuta jarraituko duzu?
Proposamen bat egin dit Realak klubean jarraitzeko, nesken taldeekin gauza ezberdinak egiteko asmoz. Ikusiko dugu.

Nola ikusten duzu bigarren taldea sortzearen ideia?
Gertu dagoen zerbait da. Klubak egin didan eskaintza ere horrekin lotua dagoela uste dut. Pauso garrantzitsua da. Nahiz eta egun Gipuzkoako harrobi ia guztia Realaren bigarren talde moduko bat izan, bigarren talde propio bat edukitzeak suposatuko lukeen jarraipena ez da modu berean egiten.

Encinas: «Nekeak eragina izan du eta ondo egon nahi nuen erabaki dudana erabakitzeke».

Murua: «Maitatua sentitu naiz, baina ez naiz erreferente kontsideratzen».

Iturregi: «Alderdi guztietan, errekonozimendu handiagoa izatea bota dut faltan; asko kostatzen da errekonozitua izatea».

GABEN kirol kluba da zure proiektuetako bat. Bertan ikusten duzu zeure burua urte askoan?
Klub bat edukitzea irudikatzen nuen, nire ilusioa zen, eta beste proiektuekin egin bezala, aurrera eramatea gustatzen zait. Udako kanpalekuak egiten ditugu, Tximist Torneo antolatzen dugu... Gauza txikiak dira, baina handi egitea nahi dut. Tximist Torneoan aurrean iaz baino talde eta jokalaria gehiagok eman dute izena eta egun horietan Hondarribian ekintza gehiago ere egingo ditugu (tailerrak, umeentzako lasterketa txikiak, *free style* ikuskizunak...), areto-futboleko txapelketaz gain [atzo hasi zen eta bihar bukatuko da].

Juan Carlos Samaniego «Tximist»-en hutsunea 13 denboraldi hauetako une negatiboena izan da, ezta?
Bai, zalantzarik gabe. *Tximist*-en [Juan Carlos Samaniego, prestatzaile fisikoa] heriotzak asko markatu gintuen bera ezagutzeko aukera izan eta gertutik bizi izan genuenok.

Urte asko partekatu genituen berarekin. Beti zegoen gurekin, nahiz eta azken urtean gizonezkoen taldearekin lan egin. Askok babesten gintuen, edozertan. Tximist Torneo, nola ez, berarengatik da. Txapelketa bat sortu nahi nuen eta Hondarribian egin nahi nuen, asko gustatzen zitzaidan lekua zelako. Tximist bera prest agertu zen Hondarribiko udaleko kontaktuak emateko eta hil baino astebete lehenago eman zizkidan. Seinale garbi bat izan zen, torneo horrek bere izena eramane behar zuen. Niretzat esanahi handia izan zuenez, torneo handi bat izatea nahi dut, urtero esanguratsuagoa, eta berak merezi duen guztia helaraztea nahi dut.

Eta gauzarik positiboena?
Ezagutu ditudan pertsonak. Lagun asko egin ditut Realari eta futbolari esker. Lagun handiak eman dizkit futbolak. Garaipenak baino porrot gehiago bizi izan ditudanez, garaipenik handiena ezagutu ditudan pertsonak dira.

hamaikakoan jarraitutasun handirik eduki, Alberto Berasaluzerekin izan nuen segidarik handiena (2010-2011 sasoiak). Taldean beti egon dira ni baino aurrelari hobeak eta nire egoera onartu dut.

Jokalaria eredugarria izan zarela uste duzu?
Ez, ez naiz nabarmendu-eta. Ez naiz buru izan, ez dut erabaki garrantzitsurik hartu, ez dut inoiz arreta berezirik izan...

Maitatua sentitu zara?
Bai, baina ez naiz erreferente kontsideratzen. Ez dut uste ume batek ni bezalakoa izan nahi duenik.

Arantza bat da?
Ez, ez dut gutxiagotasun sentimendurik. Ni baino jokalaria hobeak dira, eta kito.



Aurrelaria zara, baina berekoikeriatik urrun?
Taldekako lana goraiatzeko gustatzen zait eta ez naiz golegile peto-petoa. ‘9’ zenbakia eramane dut eta eragin handia izan du psikologikoki. presio moduko bat nuen. Nahiz eta bost minutuz jokatu, golarekin topo egin nahi nuen, ‘9’-a neramalakoa eta aurrelaria nintzelako.

Amestutako ibilbidea izan da?
Futbola gustatzen zait eta ez dut inoiz pentsatu zer izan nahi nuen. Dibertsio hutsagatik jokatu dut.

Ez zinen eliteko futbolari sentitzen?
Ez, agian orain gehiago. Ni hona disfrutatzerako etortzen nintzen. Orain heldutasun bat daukat eta zorrotzagoa naiz.

Egunkari batean bere izenaren atzean ‘futbolari ohi’ adiera ikusita, pena pixka bat sentitu duela onartu du Iraia Iturregik (1985, Loiu). Ez omen da kontziente hurrengo denboraldian ez dela berdegunean egongo. 15 denboraldi eman ditu elitean, goi-mailan, 14 urte Athleticen eta bat Floridan, esperientzia berrien gosez. Lau liga garaikurrek apaintzen dute bere futbol ibilbidea, eta txikieneen erreferente bilakatzea lortu du. Kapitainaren besokoarekin aritu da azkenengo zortzi urteetan eta, taldeko izarra izan ez arren, Athleticen balioen ordezkari zuzenena bilakatu da.

Gutxik espero zuten zure agurra.

Denboraldi hasieratik erabakia hartua nuen eta taldekideek ere bazekiten.

Hasieratik hartutako erabakia izan zen?

Bai. Iaz Liga irabazi genuenean esan nuen aurtengoa azkenengo denboraldia izango zela eta klubari ere txapelketa hasieran komunikatu nion. Ondo egonda utzi nahi nuen. Futbolarekin erlazionatutako zerbaitetan jarraitu nahi dut eta ez nuen amaitu nahi futbola gorrotatzen. Pixkanaka ohartzen zoaz ez dela berdina entrenatzera etortzea eta nahiago nuen horrela uztea.

Klubari erretiratzera zindoazela komunikatu zenionean, saiatu ziren jarraitzeko konbentzitzen?

Urte osoan zehar saiatu dira. Koordinatzailearekin bizpahiru bilera eduki ditut eta saiatu dira konbentzitzen urtebete gehiago jarraitzeko. Nik argi neukan eta gainera urte oso bat eduki dut hausnartzeko, klubak nik jarraitzea nahi zuela jakinda. Aukerak baloratzen joan naiz, baina hilabete guzti hauetan ez dut iritiz aldatu. Hausnartu dut, baina argi neukan utzi egin nahi nuela.

Nekagarri egin zaizkizu elitean eman dituzun 15

IRAIA ITURREGI SUSTATXA

«Erreferente bilakatzea garaipen soziala izan da»

denboraldiak?

Bai fisikoki bai mentalki nekagarri egin dira. Talde lehiakor batean egonda, beti zaude motibatua, erronka garrantzitsuak daudelako urtero. Baina egia da urtero daukazula presioa, eta gogorra egiten da.

Laugarren liga irabazi ostean, bederatzi urte pasatu ziren titulurik irabazi gabe; bosgarren ligak lasaitu ederra emango zizuen, ezta?

Bai. Egia da azkenengo liga horretan presioa ez zela hain handia, jendeak ez zuelako espero guk irabaztea, baina guk presioa bageneukan. Hainbeste urtean hain hurbil ikusi ostean, lasaigarri moduko bat izan zen. Taldea ez zen konformatzen bigarren postuarekin eta iaz, azkenean, heldu zen saria.

Orain, nola ikusten duzu Athleticen etorkizuna Iberdrolaren iritsierarekin?

Iberdrolaren ekarpena eta emakumezkoen futboleant dirua sartzea positiboa da, nahiz eta Athleticentzat, filosofiarengatik, ez izan hain onuragarria. Baina nik hobetzea nahi dut. Zentzu horretan, asko pozten naiz eta onuragarritzat jotzen ditut erakunde guztien inbertsioak.

Zer nolako sentsazioekin bizi izan duzu azken denboraldi hau?

Titulu batekin erretiratzeko nahi nuke, baina iazko garaikurra gertu dago. Niretzat oso motibagarria zen berriro Champions-a Athleticekin jokatzeko. Urtebete gehiago jarraitzeko arrazoi bat izan zen eta esperientzia itzela izan zen niretzako San Mames Barrian jokatzeko; ez dut inoiz ahaztuko.

Etorkizunean Athletici estuki lotuta ikusten duzu zeure



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

burua?

Nire asmoa hori da. Horren inguruan hitz egiten gabiltza eta nik espero dut jarraitzea, gutxienez, futbolarekin lotuta; eta Athleticen izan badaiteke, are hobeto.

Urte hauetan zeren falta igarri duzu?

Orokorrean, emakumezkoen futbolak errekonozimendu gehiago izatea, alde guztietatik. Izugarri kostatzen da errekonozitua izatea, bai komunikabideen aldetik, bai baldintza aldetik hobetzea... Gutxika-gutxika lortzen joan gara eta aurrerapausoak ematen gabiltza, baina errekonozimendua askoz ere handiagoa izan behar delakoan nago.

Erreferente bilakatu izana da garaipenik handiena?

Beti esan izan ohi dut, tituluak irabaztea bezain garrantzitsua, edo gehiago, dela sozialki lortu dugun guztia. Erreferente bilakatzea, bai talde bezala, baita pertsonalki ere, garaipen soziala izan da. Guraso batzuek esaten dizute, adibidez, beren alabari jarri diotela zure izena zuregatik. Tituluak hor daude, eta egia da irabazi nahi dituzula, baina sozialki lortu duguna are handiagoa izan da.

Txikitan inoiz esan zenuen futbolari izan nahi zenuela?

Nik uste dut inoiz ez nuela esan etxean futbolari izan nahi nuenik, baina egunero jokatzeko nuen futboleant [irribarrez]. Argi zegoen. Nire etxean beti egon da kirolerako zaletasuna. Lehengusuarekin hasi nintzen jokatzeko, eta gero eskolako jolas-orduetan edo eskolatik

atera eta arratsalde osoan futboleant aritzen nintzen.

Zer eman dizu futbolak?

Niri futbolak plazera ematen zidan eta futboleant jokatzeko irrikan nengoen beti, izan patioan, zelaian... Bestetik, eman dizkit lagun asko, balio asko. Alderdi guztietan hezi egin nau.

Zerbaitekin damutzen zara?

Ez. Agian gustatuko litzaidake apur bat beranduago jaito izana, hurrengo belaunaldia egoera askoz hobean egongo baita eta beste era batera disfrutatuko dute [barrez]. Hori ezin daiteke erabaki. Baina egia da bizi izan ditutala esperientzia batzuk, non gaztetxoentzako ez diren egon; lehenengo liga, esaterako, 35.000 zaleren aurrean. Beraz, hori ere ez dut aldatzen.

Kukuak jotzen duenean

Antton Izagirre

Aurten ere, martxo-apirilean, kukua lehen aldiz entzun dugunean, txanpon batzuen bila patrikak tentatu ditugu eta hasperen egin dugu.

Kukuak jotzen duenean, aldean dirua baldin badugu, ez omen dugu urte osoan diru beharrik izango. Urte garai horretan, gure aitak, basoko lanetik bueltan, «gaur kukuak jo du» esango zigun eta patrikan zituen txanponak harrotasunez erakutsiz, «aurten ez zait txanponik faltako» botako zuen. Basoan ez zuen diru beharrik, baina «kukuak jotzen duenerako» gainean eramango zituen txanpon batzuk, bederen.

Geroztik, haien irakaspenari jarraituz, kukuak jotzen duenean, adi-adi jarri, pausoa gelditu eta behin eta birritan kukuaren

kantua entzungo dugu. «Aurten ez dugu dirurik faltako», aitortuko dugu erdi brome-tan. Sinetsi ala ez, hala botako dugu.

Gure aurrekoengandik datorkigun legatuaz pentsatzen jarrita, haien anbizioen xumetasunean aurki dezakegu parabolaren zentzua. Bizitzeko premiazkoa zuten horretan gabeziarik ez izatea zen “ku-ku, ku-ku” hark iragar zezakeena; ez inolaz ere, betirako aberastasunik. Ondo ikasia zuten, lan nekezaren ondorio zela bizimodua aurrera ateratzeko aukera bakarra.

Gaur egun, ordea, aberaste azkarraren kultura gailentzen ari zaigun honetan, beste kuku batek hartu digu gaina. Belaunaldi berrien belarrietan “ku-ku” hotsak bestelakoak izaten ari dira. Cristiano Ronaldo, Messi eta antzeko ereduak dituzte begiz joak. Ez

du axola horiek zer abilezia erabili duten aberasteko.

Badakigu trikimailuak erabili dituztela, legeari muzin eginez, kirolari, aktore eta pertsona ezagunek paradisu fiskaletan dirua gorde dutela, badakigu hango eta hemengo politikariek beren aberastasunerako boterea erabili dutela, badakigu bankuek guztion dirutik milioiak jaso dituztela; jakin badakigu... baina haien gehiegikeriak salatu baino, maizago eta errazago hartu izan ditugu begitan, bizitza premiak bultzatuta gure lurretara helduko diren etorkin txiroak.

Gauzak bere onera ekartze aldera premiazkoa dugu geure eremu sozialetan, eskola, aisialdi eta lagunarteetan arbasoen “kukuaren kultura” aldarrikatzea.

Berriz ere, kukuak jotzen duenean... •

Bi herri, bihotz bakarra

Miren Azkarate

Banuen, edo hobeto esanda, badut kamiseta bat “Bi herri, bihotz bakarra” leloa duena idatzita bi banderen goialde eta behealdean. Nerabe nintzela sarri erabiltzen nuen, lepoa eta behealdea moztua garaiak eskatzen zuen bezala. Gaur egun, amatxoren etxeko armairu batean dut gordeta, nahiz eta ez erabili, ezin izan dudalako inoiz bota. Banderetako bat, txuri, gorri eta orlegia, ikurrina. Bestea, aldiz, txuri, gorri eta urdina, kubatarra.

Aurreko astean, Euskal Herriko txoko ezberdinetan, bi herrien arteko elkartasun ekimenak burutu dira, horien artean Pasai Donibanen. Janari, edari eta dantza tailerrak, hitzaldiak, kontzertuak, mahai inguruak, eta abar antolatu ziren. Horietako bateko protagonistak Kuban dauden euskal iheslari eta

deportatu politikoen seme-alabak izan ginen. Bertan, gutako bakoitzarentzat egoera honek zer suposatu duen (eta suposatzen duen oraindik ere), gure bizipenak, malkoak eta barreak, anekdotak azaldu genituen.

Ez pentsa, gure bigarren aldia zen denak, edo behintzat seme-alabetako batzuk elkartzen ginena. Lehen aldian Fidel Castrori esker egin genuen. Hura hil zenean Donostian egin zitzaion omenaldi batek batu gintuen eta “Cubatarrak” izeneko Whatsapp talde bati esker harremanetan jarraitzen dugu. Gure gurasoak Euskal Herriaren aldeko borrokak eta maitasunak batu zituen Iparraldean, bertan iheslari zirela. Bertako babesa galdu zutenean, Kubarena jaso zuten eta horrela herri hartako borrokak eta maitasunak batu zituen berriro, gaurdaino, 30 urtez.

Guri, haien seme-alabei, bi herrien aldeko maitasuna eta borrokaren konpromisoa helarazi dizkigute jaio ginetik, eta, horregatik, eraman izan dut beti harrotasun handiz kamiseta hura eta aldarria leku guztietara. Gaurkoan, nire anaiak aste horren barruan burutu zen ekitaldi politikoan bota zuen bertsorekin amaituko dut: «Pinar del Rio-ko ixkinatik/ Guantanamoko puntara/ mila eta ehun kilometrotan/ iraultza baten islada/ Euskal Herri aske batentzako/ eredu dugun irla da/ ideia eta armaz defendatuta/ orain ideia arma da/ Iratiko basoetan hasi/ eta Sierra Maestrara/ non hago Urepeleko artzain/ hasta siempre Che Guevara/ Txomin Iturberen bigotetik/ Fidelen bizarretara/ iraultza txiki nahiz handietan/ elkarrekin joango gara». •



Maite Basterra, abatza eskuetan. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti MAITE BASTERRA

Garai batean egunero erabiltzen ziren tresnak eta objektuak gurera ekartzen ditu Maite Basterrak, ikuspuntu garaikide batekin: artzainen oporra edota arratzaleen kriseilua. Informazioa bilatu, ikertu eta pieza bakoitza egiteko artisaurok onena bilatzen du. Istorioak kontatzen dituzten piezak direla dio. Eta ez zaio arrazoirik falta donostiarrari.

Historia eta istorioak kontatzen ditu Maite Basterrak (Donostia, 1980) bere piezen bidez. Mendeetan atzera begiratzen du, gure arbasoek, gure ondareak, aurrera egin dezan; ahanzturatik atera eta gaurko sukalde eta etxeetara ekarri, esnea edateko, garai bateko artzainen edo ikazkinen moldean. Kaikua, oporra eta abatza antzinako ontziak edota arrantzaleek gau ilunak argitze-ko itsasontzian eramaten zituzten olio-kriseiluak.

Argazkilaritzan ere aritzen da, eta ogibidez barne diseinatzailerlea da, baina orain bi urte inguru Kinka Objects proiektua jarri zuen martxan, garai batean Euskal Herrian ohikoak ziren hainbat tresna ikuspuntu garaikide batetik berreskuratzeke. Prozesua luzea eta aberatsa da eta emaitza begi-bistakoa: pieza zainduak, mimoz eginak, diseinu delikatuaz, eta estetikoki oso erakargarriak.

Objektu bakoitza ikerketa batekin abiatzen du: zer zen, non eta zertarako erabiltzen zen, zein materialez egina zegoen, zein forma zuen... Donostiako San Telmo museoa eta Gordailua Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa bezalako lekuetan informazioa bilatu, ikertu, jaso, eta horrekin guztiarekin irudi gaurkotuak egiten ditu. Dokumentazioarena oinarritzko fasea dela dio; ezin aurrera egin hori gabe. «Datu piloa biltzen dut eta horrekin abiatzen dut bidea; kosmos moduko bat garatzen dut. Gainera, askoz ere errazagoa da informazioarekin lan egitea, bestela ezinezkoa litzateke, formarekin soilik ezin delako jolastu». Garai bateko objektuak bere begiez ikustea ere oso lagungarria zaio, finean, objektuen esentzia harrapatu ahal izateko.

Prozesua oso aberasgarria da, inplikatzan duen artisaurokua, bakoitza egiteko beharrezkoa duen profesionala bilatzen baitu. Kaiku, abatza eta oporkatiluak egiteko, Elosuko (Ara-
ba) Ollerias Euskal Buztingintza

Museoko Blanca Gomez de Segura artisauaren laguntza izan du. «Dokumentazio fasea amaitzean artisauarengana noa elkarrekin prototipo batzuk egin eta neurriak egokitzeko. Koloreak eta esmalteak aztertzen ditugu... formak gehiago garatzen dira eta guztia erabakita dagoenean, produkzioa hasten da».

Ekoizpena oso mugatua da. Objektu bakoitzetik 30 pieza baino ez dira egiten, eta bakoitzaren azpialdean egilearen izena eta seriearen zenbatgarren alea den zehazten da. Hura ikus-
tean, nolabait, esku artean altxorra duela sentitu dezake erosten duenak. Eta, Basterrak dioenez, etxean ale bat dutenek mimo handiz gordetzen dute, baina begi-bistan, ikus dadin.

«Eduki genuena estimatzea da esentzia. Balio handiagoa ematen diot horri, denetik edukitzeari baino. Ondo egina dagoen zerbait, mimo eta maitasun handiz, berezia da, eta estimatzeko egina dago. Gainera, oso gauza erabilgarriak dira –zehaztu du–, egunerokoan erraz txertatzen direnak eta funtzio bat betetzen dutenak».

Ontzietarako gresa erabili du, oso material sendoa eta gogorra, eta kanpotik esmalte zuria dute, euskal zeramikaren berezitasunetako bat delako.

ABA, KUA, ORA ETA KLUA

Abatzari «aba» izena jarri dio, kaikuari «kua» eta oporrari «ora». Kriseiluari, «klua». Izen berriei sustraiei egin nahi izan die keinu. Bi kirten ditu lehenengoak, eta guztietan handiena da. Jatorrian, 12 eta 25 litro esne artean sartzen ziren eta bereziki gazta egiteko prozesuan erabiltzen zituzten artzainek.

Ardiak jeztean esnea jasotzeko, berriaz, kaikua zuten. Bi kirtentxo ditu Maite Basterrarenak, eta formak ederki asko ekartzen du gogora egurrezko jatorrizkoaren forma eliptikoa eta alde batera zuen inklinazio arina. Dioenez, litro bat eta hogeitarteko edukiera zuten.

Oporra zen guztietan txikiena, eta hori ere errespetatu egin du donostiarrak. Kirten bakarra-
rekin, artzainek esne bete opor



Garai bateko abatz, kaiku, opor eta kriseiluaren irakurketa garaikidea egin du Maite Basterrak. Bera dago Kinka Objects proiektuaren atzean. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

edaten zuten, jaten zuten taloa laguntzeko.

Kriseilua egiteko, bestalde, brontzea erabili du, eta horre- gaik beste artisau baten eskuak eta jakintza baliatu ditu, Gastei- zeko Bronzeder tailerrekoare- nak. Azken lan hau konplexua- goa izan dela aitortu du, teknologia berriak sartzen saia- tu direlako 3D inprimagailuare- kin prototipo azkarrak egiteko, baina materiala eta teknika di- rela-eta ez da posible izan. Pro- zesu guztiak Euskal Herrian egi- nak daudela aipatu du, bertako profesionalekin.

Zaila da, dioenez, hain lan ze- hatzak egiten dituzten pertso- nak topatzea, ogibideak pixka- naka galtzen doazelako. Horregatik, halako profesiona- len sarea sortzea oso garrantzi- tsua dela uste du. «Sarea sortzen saiatu naiz, ikertu dut non zego-

Hiru katilu mota eta kriseilu bat kaleratu ditu, eta laster espero du brontzezko lanpara amaitzea. Ateratzen duen etekin oro pieza gehiago berreskuratzeko erabiliko du.

Hogeita hamar unitate baino ez daude objektu bakoitzeko, eta Kinkaobjects.com gunean daude salgai. Bertan azaltzen da atzean dagoen prozesu konplexua, baita historia apur bat ere!

en behar nuen artisau bakoitza eta ateak jo ditut. Euren artean ez da aliantzarik sortu, baina el- kar ezagutu dute, badakite hor dagoela bestea eta ez da gutxi, etorkizunean batak bestea be- harko balu... talentu asko dago, baina ezkutuan bezala», kontatu du. Horregatik, apustuetako bat du sarea handitzea, jendeak be- re egitasmoak aurrera ateratze-

ko beste baten laguntza behar badu jakiteko beste aldean ba- dagoela inor.

SOSTENGUA, LIBRE IZATEKO

Ilusio handia du jarrita, nahiz bidea erraza ez izan. Diru lagun- tza bati esker jarri ahal izan zuen martxan, baina erakunde- ez harago, sostenguak beste alde batetik iritsi beharko lukeela us- te du: herritarrengandik, pertso- nengandik. «Zure oinarria era- kundeak izango badira, ez zara inoiz libre izango», esan du. «Kontsumitzaileak erakutsiko balu grina, interesa, gauza haue- kiko saltoki-gune handiez hara- go, bata bestearen atzetik super- produkzioan egiten diren objektuez harago... Prezio ho- riek, gainera, ez dira errealak, eta atzean dauden lan baldin- tzak ere zalantzan jartzeko mo- dukoak dira...».

Kinka bisualki erakargarria egiten zaio jendeari, baina kon- tatzen duenez, oro har, salneu- rria muga gisa sentitzen du ger- turatzen denak. «Eta muga hori da ulertzen uzten ez diena zer den esku artean dutena, nondik datorren, atzean duen guztia... karga sinbolikoaz, historikoaz eta artistikoaz aparte. Eta hain justu hori baloratzea da gakoa duen salneurria ulertu ahal iza- teko».

Ekinean jarraituko du, sal- menta bakoitzarekin batzen di- tuen etekinak berriro beste ob- jektu bat egiten inbertitzeko. Badu hurrengoa labea eta ziur aski *crowdfunding* bidez saiatuko da ateratzen: brontzea, latoia eta altzairua dituen lanpara eder bat. Garai batean legez, gu- re egunak goxo argitzeko •

Oihane Larretxea de la Granja



Edurne Larraza Mendiluze
EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Marea kablea baino harrigarriagoa da haren transmititzeko ahalmena

Iragan astean hasi ziren Ameriketako Estatu Batuak Europarekin zuntz optikoko Marea izeneko kableaz lotzeko lanak. 6.600 kilometroko kable luzea, 4.000 metroko sakoneratik datorrena eta 10 zentimetroko diametroa duena. Horrelakoak kontatu dizkigute berrietan. Horrelakoak kontatu dizkigute berrietan, baina horiek ez dira datu harrigarrienak, nire arreta bereganatu duen datua da segundoko 160Tb transmititzeko ahalmena duela. Kilometro (km) bat 1.000 metro badira, megametro (Mm) bat 1.000.000 bat metro lirakeke eta, aldiro hiru zero-ko gehituta, gigametro (Gm), terametro (Tm), petametro (Pm). Adibidez, Lurraren zirkunferentzia ekuatoriala 40,075017 Mm-koa da, edo 0,040075017 Gm-koa edo 40.075,017 km-koa. Aurrizki horiek oso ongi azaltzen dira Wikipediako Nazioarteko Unitate Sistemari buruzko sarrean eta bertako taula ere hona ekarri dut.

Lurraren zirkunferentzia aipatzerakoan, ordean, ez dugu Tera (T) aurrizkiaren beharrik izan. Kilo 10³ bada, Mega 10⁶ eta Giga 10⁹, Tera 10¹² da.

Argitu dugu honekin Tb-ren aurrizkia, baina zer da b atzizkia? Tb hori irakurtzean terabit esaten dugu. Beraz, atzizkia *bit* da eta hori ingelesezko *binary digit*-etik dator, hau da, “digitu bitarra”. Guretzat ohikoena, digitua aipatzean, 0-9 bitarteko zenbakiez aritzea da. Hori da sistema hamartarrera guztiz ohituta gaudelako, baina kontuan izan zenbatzeko beste sistema batzuk ere erabil daitezkeela. Sistema hamaseitarra, adibidez. Kasu horretan digitu gehiago behar dira, zerotik hamabostera arte kontatu behar baitugu karaktere bakarrekin. Horretarako 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, A, B, C, D, E, F digituak erabiltzen dira. Baina badago ere sistema bitarra non 0 eta 1 diren erabiltzen diren digitu bakarrak.

Oso laburrean azaltzeko, zuntz optikoko kableek argia garraiatzen dute eta une oroko argia edo argi falta informazio digital gisa uler daiteke. Esate baterako, argia badago 1ekoa jaso dela eta argirik ez badago 0koa jaso dela esan daiteke. Beraz, Marea kableak segundoko 160 Tb transmitituko baditu Ameriketako Estatu Batuen eta Sopelaren artean, horrek esan nahi du, segundo bakar batean 160.000.000.000.000 edo 160x10¹² batteko edo zero-ko bidalikotutela.

Eta, segundo batean transmititutako informazio hori konputagailu batean gorde

nahiko bagenu? Zenbat okupatuko luke? Bada, konputagailuan gordetako informazioa ez da bitetan adierazten, byte-tan baizik. Eta zer da byte (B) bat? Bada, 8 bit. Beraz, 160Tb/8 = 20TB. Baina zenbat da hori? Bada, pentsa, segundo horretan jasotako informazio hori 4K-ko kalitatean grabaturiko pelikula bat balitz (kalitate horretan pelikularen minutu batek 375 MB okupatzen ditu), 24 orduko 37 egun beharko genituzke pelikula hori ikusteko!!!

Eta zer tamainatako disko-gogorra beharko genuke pelikula zoragarri hori gordetzeko? Hori, nire hurrengo ekarpenetan kontatuko dizuet. Orain lekurik gabe geratu naiz-eta! •

SI aurrizkiak					
10 ⁿ	Aurrizkia	Sinboloa	Eskala laburra	Eskala luzea	Baliokide hamartarra
10 ²⁴	yotta	Y	Septiloi	Kuadriloi	1 000 000 000 000 000 000 000 000
10 ²¹	zetta	Z	Sextiloi	Triliar (mila trilioi)	1 000 000 000 000 000 000 000
10 ¹⁸	exa	E	Kintiloi	Trilioi	1 000 000 000 000 000 000 000
10 ¹⁵	peta	P	Kuadriloi	Biliar (mila bilioi)	1 000 000 000 000 000 000
10 ¹²	tera	T	Trilioi	Bilioi	1 000 000 000 000 000
10 ⁹	giga	G	Bilioi	Miliar (mila milioi)	1 000 000 000
10 ⁶	mega	M	Milioi	1 000 000	
10 ³	kilo	k	Mila	1 000	
10 ²	hekto	h	Ehun	100	
10 ¹	deka	da	Hamar	10	
10 ⁰	ezer ez	ezer ez	Bat	1	
10 ⁻¹	dezi	d	Hamarren	0,1	
10 ⁻²	zenti	c	Ehun	0,01	
10 ⁻³	mili	m	Milaren	0,001	
10 ⁻⁶	mikro	μ	Milioiren	0,000 001	
10 ⁻⁹	nano	n	Bilioiren	Miliarren	0,000 000 001
10 ⁻¹²	piko	p	Trilioiren	Bilioiren	0,000 000 000 001
10 ⁻¹⁵	femto	f	Kadrilioiren	Biliarren	0,000 000 000 000 001
10 ⁻¹⁸	atto	a	Kintilioiren	Trilioiren	0,000 000 000 000 000 001
10 ⁻²¹	zepto	z	Sextilioiren	Triliarren	0,000 000 000 000 000 000 001
10 ⁻²⁴	jokto	y	Septilioiren	Kadrilioiren	0,000 000 000 000 000 000 000 001

Nazioarteko Unitate Sistemaren taula. WIKIPEDIA

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBATEGI NAGUSIA

TROPA FRANKISTAK BILBORA SARTU ZIRENEKOA

Duela 80 urte, 1936-1939ko gerra betean tropa frankistek aurrera egin ahala, alemanek eta italiarrek lagunduta, Euskal Herriko hainbat hiri eta herri bonbardatu zituzten, hala nola Bilbo, Galdakao, Erandio, Elorrio, Otxandio, Gernika eta Durango, besteak beste. 1937ko ekainaren 12an Burdin Hesia delakoa suntsitu zuten eta zenbait egun geroago Artxanda eta Pagasarri hartu zituzten. Urte bereko ekainaren 19an, larunbatarekin, tropa frankistak Bilbora sartu ziren, hiria hutsik zegoela. Irudian, Erriberako Merkatuaren parean igarotzen ageri dira. Milaka herritarrek ihes egin zuten Bilbotik soldadu frankistak sartu zirenean. Parte frankista ofizialetan agertzen zenaren arabera, Eusko Gudarosteko 10.000 miliziano atxilotu zituzten. Egun batzuk lehenago, Eusko Jaurlaritza Turtziozera aldatu zen, Bilbon defentsa batzorde bat utzita. Batzorde hori osatzen zutenetako bat Jesus Maria Leizaola Justizia sailburua zen. G. L. Steer kazetariak, frankistak sartu baino lehen Bilbori agur egin zionean, hauxe idatzi zuen: «Espero dut, eta historiak arrazoia emango dit, errepresio honek ez duela betiko iraungo. Mendeetako borrokak, bost ozeano hezigaitzetako abenturek, mugagabeko erresistentzia eta isiltasun erreserbak dituen gizasemea bihurtu dute euskalduna. Haren bizkarrak edozein erregimenen pean ere libre jarraitzen du... Euskalduna inoiz ez baita esklabo edo bilaua izan: bere ingurukoekiko abantaila du. Eta, jakin ere, badaki hori.

Parte hartu...
...eta irabazi sari zoragarri hauek!



EROSKI viajes

CARIBERAKO BIDAIA
2 lagunentzat.
7 egun. Behe denboraldia.
Dena barne.
Irteera Madriletik.



maestre

SPECIALIZED BIZIKLETA
17 ALLEZ E5 ELITE Grisa/Gorria.



EROSKI viajes

COSTA DAURADAN EGONALDIA
2 lagunentzat.
7 egun. Behe denboraldia.
Mantenu erdian.



EROSKI viajes

COSTA DAURADAN EGONALDIA
2 lagunentzat.
7 egun. Behe denboraldia.
Mantenu erdian.

EGUNEROKO SARIAK

19 Lote NAIZ:

6 hilabeteko harpidetza NAIZ L + Eguzkilo.



PUNTU ESTREN ZOZKETA: 1. 2. eta 3.
3 PACK ANTSOTEGI HOTELEAN (ETXEBARRIAN):
Gaua + gosaria. Behe denboraldian.

3 ARGAZKI KAMARA
NIKON COOLPIX S4150.



ANTSOTEGI
HOTELA | JATETXEA



SAMAR
FOTO + VIDEO + IMAGEN DIGITAL



**SOILIK
INTERNET
BIDEZ**

Soilik NAIZeko
helbide honetan
parte hartu ahal izango da:

tourjokoa.naiz.eus

naiz:

**AURTEN ERE
DOAN**

Aurtan ere,
jokoan parte hartzea
doakoa izango da eta
**PARTE HARTZAILE BAKOITZAK
GEHIENEZ 3 TALDE
AUKERATU AHAL
IZANGO DITU.**

Bidaliezaguzu
zure proposamena

Ekainaren

19tik

tourjokoa.naiz.eus
web orriaren bitartez.

eta JOKATU!



OHARRA:
Lehen 4 sariak zerga-atzikipena izango dute.
Ogasunerari indarreko araudia betez.

7 06 24



9